

FAROE, MANTENURAKO ITXITA:
Hiru egun, turismotik aparte
arnasa hartu eta auzolanerako > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA
Bihotzaren antza
IRAITZ MATEO GOGORZA > 11

2025eko maiatzaren 3a | XIX. urtea • 925. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



**INAXIO SANZ: «UMEEI
MENDIA MAITATZEN
ERAKUTSI BEHAR ZAIE»**

MENDIZALE APASIONATUA ETA HERNANIAR
PETOA. JUBILATUEN ENKARGUZ MARRAZTU DITU
17 IBILBIDE LABUR, HERRIA ERTZ ASKOTATIK
EZAGUTZEKO. MENDIAREKIKO MAITASUNAK ETA
HORI TRANSMITITZEKO BEHARRAK GIDATU DUTE
BERE PAUSAJEA. > 22 Jon URBE | FOKU

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.
Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxa: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



Faroe uharteak itxita: auzolana turismoaren orde 04

Genevieve Jeanningros moja birala egin da bere laguna zen Aita Santuaren agurrean 08

Lamia BBK Women Hostel, emakumeentzat ostatu gozo eta seguru bat Bilbon 12

«Kneecap»: talde irlandarraren ibilerak kontatzen dituen filma euskaraz gozatzeko aukera 17

Inaxio Sanz, mendizalea: «Niri dena eman dit mendiak» 22

Pantaila txikian: «The Pitt» eta medikuntza telesailak 27

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Aiora Zabala:** Berriztagarriak, isuria eta anbizioa
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Arkitektura eta medikuntza
- 11 **Iraitz Mateo Gogorza:** Bihotzaren antza
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Leire Lareki Sanchez eta Eneko Mendiluze Plaza:** Giza komunikazioaren teoria eta komunikazio ez bortitza
- 21 **Iker Barandiaran:** Agerikoa ez den estetikaren erritmoan
- 26 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Agortuta
- 26 **Miren Azkarate Badiola:** Mundu kolore bakarraren aurrean, ortzadarra!
- 30 **Izaro Fernandez Iriondo:** Eta doktoretza ostean, zer?



{ datorrena } Aiora ZABALA

Berriztagarriak, isuriak eta anbizioa

E rresuma Batuan egonda, itzalaldiaren berri telefono mezu baten bidez jaso nuen, ia istantean. Senideak ongi zeudela ziurtatu eta segidan bizi-sena piztu zitzaidan: etxera joango al nintzen zitzuan, bateriak entxufatzeko? Nahitako erasoa izan bazen, beste herrialdeetara heda zitekeen.

Garai honetan hedatzen ari den paranoia belikoak horrelako pentsamenduak sorrarazten ditu. Pentsamenduok bere kabuz agertzen dira, baina talde interesatuek nahita hedatzen dute beldurra. Zorionez, pentsamendu hari jarraitu ordez, eguzkipean ogitar-tekoaz gozatu eta lanera itzuli nintzen. Era berean, energia itzalaldiaz baliatzen dira zenbait sektore energia iturri berriztagarrien aurkako istorioak hedatzeko. Eta gaia puri-purian dagoen bitartean, ez dugu iparra galdu behar. Abagune ederra baitago hurrengo hila-beteetan herriaren energia eta klimarekiko estrategia eztabaidatzeko, hurrengo urteetarako helburu berriak erabakitzeke.

Orain dela bi aste pasatxo, Eusko Jaurlaritzaren 2021-2024ko Trantsizio Energetikoko eta Klima Aldaketarako Planaren ebaluazio txostena argitaratu zen. Bi ondorio nagusiren berri ematen du: berotegi efektuko gasen (BEG) isuriaren helburua lortu dela baina elektrizitatea ekoizteko iturri berriztagarriena ez, ordea.

Planaren lau urtetan lortu beharreko helburu bat BEG isuriak %30 murriztea zen, eta %33a lortu da, behin-behineko datuen arabera eta 2005 urtearekin alderatuta. Bestalde, berriztagarriak energiaren 0.2 portzentaje puntu gehiago ekoiztera iritsi dira epe horretan, baina helburua 3.1 puntutan igotzea zen, energia osoaren %20 izan arte.

Itxuraz, berri ona da, klima larrialdiari aurre egiteko garrantzitsuena isuriak murriztea baita. Nola egin, bigarren mailako kezka da: berriztagarriak hedatuz, energia efizientzia hobetuz edota garraio sistema eraldatuz, autoen mendekotasuna eta garraio motorizatuaren beharra gutxitzeke.

Txostenaren bi ondorioekin lotuta, eztabaidarako bi gogoeta datoz. Batetik, BEG isuriak mugatzeko helburua handiagotu daiteke aurrerantzean, zenbait herrialdek egin duten bezala. Europako Itun Berdearen arabera, 2030erako isuriak %55 murriztu nahi dira, Espainian %32, Frantzia %40. Denak 1990eko isuriekiko. EAEko helburuen erreferentzia, ordea, 2005. urtea da (25 milioi tona isuri ziren). Erreferentzia urtearen hautua ez da kontu xumea, eta Kyoto Protokoloaren negoziazioetan liskarra ekarri zuen. EAEn 2023an 17 milioi tona inguru isuri baziren, 1990ekin konparatuta (ia 21 milioi tona) murrizketa %18 ingurukoa da, eta ez %33. Ohiko erreferentzia urtea ez hartzeko arrazoi anitzak egon daitezke, baina horiek ez dira aitzakia asmoak txikiagotzeko.

Bestetik, berriztagarrien aurrerapen falta ez litza-teke erabili behar proiektu berriak inposatzeko. Halako proiektu batzuk aurkakotasuna topatzen badute, parte hartze faltagatik da neurri batean. Herriak proiektuen jabe sentitu behar du, eztabaida eta era-

«Herriak proiektuen jabe sentitu behar du, eztabaida eta erabakiak bereganatu»

bakiak bereganatu. Inposatuak datozela sumatzen bada, boterearekiko mesfidantza badago, orduan helburuei buruzko zenbakien argumentu sinpleak ez du onarpena indartuko. Jakina da helburu orokorrean adostea errazagoa dela, xehetasunetan baino. Baina ingurumenaren aldeko politikek ez lituzkete polarizatu behar ingurumenaren alde daudenak (eta azken inkesten arabera, asko dira). Elkarlanean eztabaidatu behar dira xehetasunak, kalte gutxien eta onura gehien ekarriko dituzten irtenbideei bide emateko.

Lau urteko planaren amaieraren ostean, epe ertain eta luzerako estrategiak garatzear daude, 2030 eta 2050erako. Aukera bikaina da orain, plan berrietan anbizio handiagoko helburuak erabakitzeke. •



Faroe uharteak ez dira Europako lekurik bisitatuenak. Urrun daude Ipar Itsasoan, oso eremu euritsua da, eta garraioa ez dago erraz: aire-konpainia gutxi iristen dira; horrez gain, astean behin Danimarkatik Islandiara doan ferryak geldialdia egiten du bertan. Faroetar gehienentzat zail samarra zen, duela ez asko arte, bisitariak imajinatzea Ipar Atlantikoan galdutako artxipelago honetan, Kalsoyko itsaslabarretan mendi-ibilian, Gjogv-eko belarrezko teilatuei argazkiak egiten edo Mykines irlako lanpernamusu txoriei beha.

Hala ere, duela hamarkada bat turismoa sustatzen hasi zirenetik, bisitari kopurua gorantz joan da. Neurrigabe ez hazteko, eta beharrezko etena egiteko, «Mantenurako itxita» izeneko programa jarri zuten martxan 2019an: ohiko gune turistikoak pare bat egunez

MANTENURAKO ITXITA

Faroek hiru egun hartu ditu boluntarioak auzolanean aritzeko

📁 **INGURUMENA** / Urtzi URRUTIKOETXEA

Fenomeno berria da turismoa Faroe uharteetan, baina etengabe doa gorantz. Hazkunde hori kontrolatzeko, «Mantenurako itxita» programa egin dute pasa den ostegunetik gaur arte: ohiko bisitarien gune garrantzitsuenak zarratu dizkiete, eta mundu osoko boluntarioak hartu dituzte auzolanerako.

itxi zituzten eta, era berean, boluntario gisa laguntzera etorri nahi zutenei dei egin zieten. Hegaldia beren patrikatik onartu beharko zuten, baina bertakoek hartuko zituzten etxean lotarako eta otordueta-rako. Milaka eskaera jaso ostean, ehun bat lagunek parte hartu zuten lehen edizioan. Geroztik, 600 lagun inguru

izan dira hurrengo ekitaldietan (23.000k egin dute eskaera). Aurtengoa, ostegunean hasi zen eta gaur amaituko da.

«Programak pizgarri gisa balio du uhartearen edertasuna mantentzeko funtsezkoak diren instalazioak sortzeko: bideak, begiratokiak, eta abar. Modu honetan, ingurumenaren zaintzan beti aurretik joa-

tea bermatzen dugu», esan du Jóhan Pauli Helgasonek, Visit Faroe Islands-eko garapen-kudeatzaileak. «Harro gaude programaren mezuarekin, bat egiten baitu bidaia arduratsuenen joerarekin, eta jendeari, bidaia-tzen duenean, zerbait bueltan emateko aukera ematen dio», gaineratu du.

Laino lodia eta euria eguzkia baino ohikoagoak diren lurralde honetaraino turismoa bertako gobernuaren bultzadaren ondorioz eta marketin kanpainen berritzaileei esker iritsi da.

Torshavn hiriburuko exekutiboak ekonomia dibertsifikatzeko helburua jarri zuen duela urte batzuk. Faroetarrak, Danimarkako herriartasuna izanik, badira Europako Bata-suneko herritar, baina artxipelagoa bera ez da EBko kide, eta hemen ez dira Bruselako arrantza-kuotak ezartzen. Hala ere, itsas zabaleko arrantza eta izokinen hazkuntza ia ekonomia-aren ardatz bakarra izatea arriskutsuegia zela iritzi zion gobernuak, eta balizko krisien aurrean beste jardura batzuk ere izatea komeni zitzaiola ondorioztatu zuen.

Iaz, esaterako, Europatik kanpoko lehen kanpainetako batean, New Yorkerainoko hegaldi bat izan zuten udako denboraldian. Danimarkako erresumaren zati den lurralde autonomo honek 130.000 bisitari zenbatu zituen 2023an, eta 125 milioi euro utzi zituen eskandinaviar nazioan. Duela hamar urte, Faroeetako BPGaren ehuneko bat zen turismoa. Egun, % 6ra iritsi da.

Nondik begiratzen den, pen-tsa liteke ez dela asko (Bilbok zein Donostiak, kasu, milioi bat bisitari baino gehiago zenbatu zituen bakoitzak). Iparraldeko itsasoan aparte samar da goen artxipelago txikia da

Boluntarioak bideak garbitzen auzolanean.
Bjartur VEST / TURISMO BULEGOA

Faroe, azken batean: Islandia, Norvegia, Danimarka eta Eskoziako Shetland uharteen erdian, eta lau lurraldeetatik aski urrun, hala ere. Baina pertsonak baino ardi gehiago dauden lurraldea da: 54.000 biztanle dira, Nafarroa Beherearen antzeko azalera daukan lurralde batean.

Turismoa aho bikoitzeko arma dela argi geratu da azken urteotan. Askok, gehienek ziur aski, maite dute, ahal izatera, oporraldiren bat izatea, urruneko edo gertuko lekuak bisitatzeko. Turista kopurua masibo bihurtu da Euskal Herriko eta Europako ez toki gutxitan, ordea, eta horrek dakartzan kalteak ere begi bistan daude.

Turismoak dakartzan balizko onura ekonomikoen eta hain onuragarriak ez diren beste ondorio batzuen arteko oreka bilatzea beti da zaila.

Faroeke kasuan, Islandia beti izan da erreferente garrantzitsu, anaia edo ahizpa handi baten gisara: Danimarkaren mende egotetik independente izatera igaro zen 1945ean, bi hizkuntzak ez daude urrun, antzeko ortografia darabilte, eta faroeera biziberritzeko islandieraren ereduari begiratu ohi diote. Turismoan, baina, «kontra-eredu» gisa ikusi dute Islandian gertatutakoa: 2023an bi milioi bisitari baino gehiago izan zituzten, 393.000 biztanle soilik izanda.

«Islandiaren akatsetatik ikasi dugu», adierazi zion 62° N agentziako Rannva Poulsenek “Le Monderi”. Gaztetan Berlinera joan ostean, ez zuen itzultzeko asmorik, baina turismoak aukera bat eman zion, «gure herriaz harro sentitze»ko. Danimarkara ikasketak egitera doazen asko ez dira artxipelagora itzultzen. Turismoak arrantza industriatik

kanpo aukerak eskaintzen ditu. Faroeke biztanleria gorantz hasi da berriz ere, baina bada-kite egun batetik bestera egoerak gainez egin dezakeela: «Beldurra diogu Airbnb gisako alokairuak ugaltzeari, horrek are zailago bihurtuko lukeelako herritarrek etxea aurkitzea», aitortu du. Mendi-ibilaldietan gertatzen diren istripuak ere kezka-iturri dira, erreskaterako helikopteroak erabiltzeak irla urrunenetan bizi diren biztanleei garraio-bide hori kentzea baitakara.

«BOLUNTURISMOA»

«Faroe uharteek arrakasta izan dute zenbait urtez turismoa bultzatzen», dio Rune Hørslev-ek. «Mantenurako itxita» kontzeptua sortu zuen Danimarkako Mensch sormen agentziako kidea da. «Alde batetik, turismoa gora zihoan, baina, bestetik, modu jasanga-

«Batetik, turismoa gora zihoan, baina, bestetik, modu jasangarrian kudeatu nahi zuten, tokiko komunitateak etekina ateratzeko. Asteburu baterako ixtea bururatu zitzaigun»

Faroeetako berrogei bat lagunekin batera auzolanean ariko ziren ehun bat bisitari gonbidatzea pentsatu zuten, herrialdeak behar-beharrezkoak zituen lanetarako

rrian kudeatu nahi zuten, tokiko komunitateak etekina ateratzeko, ez soilik ekonomikoki, baita gizarte bezala ere. Asteburu baterako ixteko kontzeptua bururatu zitzaigun».

“Voluntourism” edo «Bolunturismoa» kontzeptua sortu zuten, ingelesezko “volunteer” (boluntario) eta turismoa lotuta. Ez da kontzeptu berria ere, eta ezagunak ditu arriskuak, mundu osoan behin baino gehiagotan ikusi den legez: bo-

rondate onenean joandako pertsonen kontzientzia indartu, baina egiaz onura baino kalte handiagoa egitea bisitatzeko dituzten komunitateetan.

Aurrekari horiek aintzat hartuta, Faroeetako berrogei bat lagunekin batera auzolanean ariko ziren ehun bat bisitari gonbidatzea pentsatu zuten, hain biztanle gutxiko nazioak behar-beharrezkoak zituen lanetarako. Mendi-bideetan harri solteak kentzea eta egurrezko seinaleak jartzea norabidea markatzeko, esaterako. Lehen edizioan parte hartu zuen Tim Ecott kazetariak aipatzen zenez, «historikoki, harri solteak herritarrek garbitzen zituzten, baina gaur egun errepideak daude eta oso gutxitan ibiltzen dira mendian. Egun, turistak dabilta batez ere mendi malkartsuen, itsas hegazti oparoen eta itxura basatiko ardien artxipelago hau araka-

«Mantenurako itxita»
programaren barnean,
boluntario lanak egiten,
2022ko maiatzaren 6an.
Bjartur VEST / TURISMO BULEGOA



tzen, eta haientzat berritzen dira gehienbat».

MARKETINA

Visit Faroe Islands-ek aitortzen du «Mantenurako itxita» programa «marketin kanpaina» ere badela, «baina esperientzia turistikoan benetako hobekuntzak egiteko ere badela, eta bisitariei eta bertakoei kultur truke egokia eskaintzeko. Turismoaren bertsio jasangarriago bat dela uste dugu, 50.000 biztanle besterik ez dituen herrialde baterako», dio Jóhan Pauli Helgasonek. Bera arduratu zen, 2019an, 25 herrialde-tatik iritsitako lehen ehun boluntarioak hamar egitasmotan banatzeaz, eta beharreko logistika-kontuez. Lehen edizioan aukerarik izan ez zutenetako askok berriz ere eskaera egin zuten hurrengo urteetan, eta egun, Faroetara auzolan-egun hauetan joateko aukera egokitzeari «loteria» gisa ikusi ohi du-

te. 80 lagun gonbidatzen dituzte, eta sei mila inguru eskaera jaso, mundu osoko ehun herrialde-tatik, gutxi gorabehera. Hau da, %2tik beherakoa da lekua egokitzeko aukera.

Gonbidapenen %30 beharri-zanen araberako profilei esleitzen dizkiete, baina gainerakoak zotz eginda aukeratu ohi dira, mendian ibiltzeko eta mailuak, palak eta bestelako lanabesak erabiltzeko gai izatea baino ez dute eskatzen.

«Bai, noski, marketina da» aitortzen du Vanja Davidsen boluntarioen talde bateko buruak, lan horrek guztiak egiaz onurarik uzten ote duen galdetutakoan. «Baina lagundu ere egiten du. Hemen egunero dago lanen bat, konpondu beharreko zerbait».

Slættaratindur Faroeko mendi garaienaren tontorrera bidea garbitzea eta argitzea esleitu zitzaion aurreko urteko talde bati. Boluntarioak lerroka

jarrita, batzuek harriak zulatu zituzten bidea argiago egiteko, beste batzuek zorua berdindu zuten, urrats seguruagoak izateko, eta espraiz markatu zituzten bideak.

Beste lanetako bat «pertsonek kontagailuak» jartzea izan da, mendi-ibilbideen eta kulturen sarreretan, leku bakoitzak jasotzen dituen bisitarien kopuruari buruzko estatistikak izateko. Amy MacPherson 2023ko boluntarioak kontatzen duenez, Tórshavn hiriburuaren eta Kirkjubøur herri zaharraren arteko bidean lanean zebilela ikasi zuen mendi-bideetan dauden *cairn*-ak (pertsonek egindako harri-pilaketak) ez zirela ukitu behar. «Jendeak uste du agian laguntzen ari dela, edo gurari bat gehitzen ari direla lehendik dauden *cairn*-etan arroak gehitzen dituztenean», esan zien taldeburuak, «baina ez dira ohartzen zulo horien artean

harri berriak sartuz, *cairn* baten euskarri-egitura kaltetu dezaketela; baliteke oso zaharra izatea eta erortzea».

BAKARRIK ETA IRUDIMENTSU

Gásadalur-en egin zuten lehen edizioako herri-lanetako bat, Vágur uhartean. Faroetan argazki gehien egiten den txokoetako bat dauka Gásadalur-ek, itsaslabarretik Atlantikora zuzenean isurtzen den ur-jauzi bat, baina duela hogeitaz urtera arte bertan geratzen ziren herri-ritar bakanek oinezko mendi buelta egin behar zuten gainerako herrietara edo, sinpleki, medikuarenera joateko. 2003an oinezkoei eta 2006an ibilgailuei irekitako tunelak hori guztia aldatu zuen. Turista asko etortzen dira, baina oraindik ez dute biztanleria emendatzea lortu. Edozelan ere, herrialdean etengabe gertatu diren aldaketan adibide da: ez dira mundu zabalera eta turismoa soilik zabaldu, mendeetan itsasoak bereizitako irla gehienak lurpeko tunelen bidez lotu dira, sekulako ingeniaritza-lanei esker.

Mendeetan aurrera egiten jakin duen nazioa dira; azken batean, arrantzan historikoki, eta bestelako erronka modernoetan gaur egun. Duela urte gutxi, Google-k faroeera bere itzulpen-hizkuntzen artean sartzen ez zuela-eta, beren kabuz jo zuten, bisitariei bertako hizkuntza txikian komunikatzeko gaitasuna ere emateko.

Hala, online itzulpen zerbitzua sortzeko, herrialdean gora eta behera ibili ziren elkar grabatzen: eskolako irakasle zein nekazari, bertako herritarrak beren hizkuntzan entzun eta itzultzeko aukera ematen zuen. Bertakoen esaldi kuttunetako bat honakoa da: «*Um tær ikki dámar veðrið, bíða so*

«Mantenurako itxita» kartela soinean eramaten boluntario bat, 2021eko irailaren 22an. Polarfilms / @polarfilms.fo TURISMO BULEGOA



bara í 5 minuttir (ez baduzu atsegin eguraldia, aski da bost minutuz itxarotea».

Lehendik ere bestelako ekimen batzuk egin zituzten munduko joera teknologikoe-tatik baztertuta ez gelditzeko. Google Maps-en kale eta bi-deen Streetview zerbitzuan ez zeudenez, faroetarrek eurek eratu zuten artxiboa... kame-rak ardien bizkarrean jarrita. Hala, Streetview beharrean Sheepview (ardi-ikuspegia) ize-na emanda, mundu osoan za-baldu zen ekimenaren ospea.

KONTRAESANAK

Aldaketak aldaketa, errezeloa ere badakar beti berrikuntzak, are gehiago kanpotar gutxi ibili izan den lekuetan turistak agertuz gero. Azken batean, turismoak sentimendu kontra-jariak piztu ohi ditu, eta Faro-en ere antzera da. Torshavn hiri-buruko ostatu eta negozio be-riak pozarren dauden bitar-tean, herrietan batek baino gehiagok uste dute bisitari-ek dakarten ustezko onura ez dela haiengana iristen. Mendingoan dohainik ibili ohi diren askok, esaterako, ez dute ulertzen Fa-roetako ibilbide ezaguneneta-ko batzuk bertako nekazarien lurretatik igarotzen direla, eta ordainlekuak egotea naturaren erdian. Baina, era berean, neka-zari eta artzainak ere kexu dira turistek utzitako arrastoaz, be-lardiak higatzeaz edo ardiak uxatzeaz. Instagramen hain eder geratzen den belarrezko teilatudun etxe hori, esaterako, familia baten baserria da, eta inork ez du maite turistak leihotik begira harrapatzea.

Programa diseinatu zute-nean horrelako erreakzioak au-reikusi zituztela diote antola-tzaileek, eta giro inklusibo bat sortzeko ahalegina egiten dute-la. Egitasmoak lantzen diren bi-

tartean, nekazari eta lur-jabee-kin kontsultak egiten dituzte.

Azken batean, Faroetara doazen gehienak naturak era-karrita joaten dira. Eta azken urteotan ugaritu diren ekintza horietako batzuk, mendi-txan-goak edo kayakean ibiltzea, esaterako, oso arrotzak egiten zaizkie. «Tradizionalki, faroeta-rrentzat, aire librea lan egiten duten lekua da», dio taldeeta-ko baten gidari den Alda Mag-nusardóttir Egilstrøð-ek. «Fa-roeko natura oso muturrekoa da; beldurra eta errespetua izan behar zaio. Beraz, aisial-

Ez dira mundu zabalera eta turismora soilik zabaldu, mendeetan itsasoak bereizitako irla gehienak lurpeko tunelen bidez lotu dira, sekulako ingeniari-tza-lanei esker

Urtez urte, faroetarrak eurak ere hasi dira izena ematen auzolanerako boluntario gisa. Hauek ez dute hautapen-prozesurik egin behar, automatikoki sartzen dira

Duela hiru urte
boluntario lanetan ibili
zirenen taldeko argazkia.
Bardur EKLUND / FAROETAKO
TURISMO BULEGOA



dian mendi batera igotzearen ideiak ez du zentzurik berta-koentzat», esan du.

Elsa Maria gidariak, Imagine5 kazetari programa honekin be-rrearaikitako bideak erakustea gain, programaren beraren ga-rrantzia azpimarratu du. «La-guntza behar dugu mendiza-leek ingurumenean eragindako kaltea konpontzeko. Euria egi-ten badu, bide hauek ezegon-korrak dira, eta batzuetan arris-kutsuak. Nork ordainduko du berreraikitzea, turistek egin ezean? Nekazari-ek ez dute ho-rretarako dirurik».

Programako boluntarioak Faroeko etxeetan geratzen di-ra, baina ez dira kanpotarrak bertan parte hartzen duten ba-karrak. Urtez urte, faroetarrak eurak ere hasi dira izena ema-ten auzolanerako boluntario gisa. Bertakoen kasuan, ez du-te hautapen-prozesurik egin behar, automatikoki sartzen dira. Helburua, kanpoko mar-кетинarekin eta auzolanarekin batera, komunitatea elkartzea

eta arrastoa uztea da. Urtez ur-te, gero eta gehiago omen dira bideak garbitzen eta berritzen aritzen diren faroetarrak.

Inork ez du aurkitu turis-moaren izaera bikoitzean as-matzeko giltzarik oraindik, bai-na gero eta gehiago dira kontrolik gabeko hazkundeari aurre eginda norbere arima galtzea ez dakarren ereduren baten bila ari direnak. Hirietan, eta hirietatik kanpoko landa-eremuetan, komunitate guztia-ri onura ekarriko dion formula orekatua nahi dute Faroe uhar-teetan ere. Itsas-bidaiei erudia maite ez arren, turisten ehune-ko 30 itsasoz joaten da, konti-nentetik Islandiara bidean doi-doi eguneko geldialdia egitera. Aireportu berria ere badaukate; Danimarka, Norvegia eta Islan-diaz gain, Paris, Londres eta Bartzelonara ere izaten dira udan hegaldiak, baita Mallor-ca eta Kanarietara ere. Turis-moaren kontraesanetan baita-go bertakoak ere turista direla kanpora joatean.

ESMATIK VATIKANORA

Genevieve Jeanningros moja birala egin da lagun zuen Aita Santuaren agurrean

Motxila berde bat sorbaldan, Genevieve

Jeanningros moja Frantzisko Aita Santuaren gorpura gerturatu zen minutu batzuez, isilpean otoitz egitera, Vatikanok ezarritako protokolo zorrotzari muzin eginez. Arau horien arabera, kardinalak, apezpikuak eta Vatikanoko langileak lehenengoak izan behar ziren Aita Santuaren hilkutxara gerturatzen, eta bere alboan otoitz egiteko gelditzea debekatuta zegoen. Baina Jeanningrosek egin egin zuen. Zerraldoaren alboan zutik gelditu zen, bakarrik, isilpean otoitz egiten. Irudi hori laster birala egin zen, baita bere ize-na eta istorioa ere. Frantziskok «*enfant terrible*» izengoitia jarri zion. Beraien arteko adiskidetasuna aspaldikoa zen, nahiz eta hasiera apur bat tirabiratsua izan. Esan daiteke nolabait Argentinako diktadurak elkar gurutzatu zituela.

Jeanningrosen izeba, Leonie Duquet, moja hau ere, 1977ko abenduaren 10ean bahitu zuten militarrek. Egun berean, Maiatzako Plazako Amak elkartearen fundatzaile izan zen Azucena Villaflor eraman zuten. Operazioa, dena den, bi egun lehenago hasi zen, abenduaren 8an, hain zuzen ere, Buenos Airesko Santa Cruz elizan. Bertan, hainbat senide eta giza eskubideen defendatzaile elkartu ohi ziren. Abenduaren 10ean “La nación” egunkarian «Gabon baketsu baten alde, egia nahi dugu» izenburuarekin argitaratzeko asmoa zuten idatzia ordaintzeko dirua bil-tzen ari ziren.

Abenduaren 8tik 10era bitartean, hiru ama – Maria Ponce,

JENDARTEA / Ainara LERTXUNDI

Genevieve Jeanningros mojaren izeba, Leonie Duquet, moja hau ere, Argentinan desagerrarazi zuten. Elizaren isiltasunarekin minduta, gutun bat idatzi zion Jorge Bergoglieri. Urtetara, adiskidetasun sendo bat sortu zen haien artean, jada Aita Santua zenean. Isiltasunean, motxila bat soinean eta protokoloak hautsiz agurtu zuen.

Esther Ballestrino eta Villaflor bera–, bi moja frantses –Alice Domon eta Duquet– eta Angela Aguad, Remo Berardo, Julio Fondevila, Patricia Oviedo senideak eta Horacio Elbert, Raquel Bulit eta Daniel Horane ekintzaileak bahitu zituzten. Operazio horren burua Alfredo Astiz, ESMAko 3.3.2 taldekoa, izan zen. Begi urdineko ile-horiak desagertu baten anaia zela esanez lortu zuen taldean infiltratzea eta amen eta mojen konfiantza berega-

natzea. Bilkura horietako batean, ESMAn bahituta zegoen neska gazte bat eraman zuen berarekin, behartuta, bere arreba zelakoan. Inork ez zuen susmatu momentu horretan desagertuta zegoen militante bat zenik. Gerora jakin izan zen Silvia Labayru zela. Leila Guerriero kazetari argentinar- rak ederki jaso ditu “La llamada” liburuan Labayruren bizi-penak eta infiltrazio operazio horretan torturapean eta mehatxu-pean parte hartu

Aita Santuak 2024ko uztailean Luna Park jolas parkea bisitatu zuen. Bertan lan egiten du Genevieve Jeanningrosek, bere kongregazioarekin, Hermanitas de Jesus. Francesco SFORZA / GETTY IMAGES



behar izateak zer-nolako ondorioak ekarri zizkion.

2009ko abenduan GARArekin eginiko elkarrizketan, hitz hauekin gogoratzen zituen Nora Cortiñasek Santa Cruz elizaren militar operazioa eta Astiz bera. Euskal Herriarekin lotura berezia izan zuen Cortiñasek. 2024ko maiatzaren 30ean hil zen, desagerrarazi zuten semea aurkitu gabe. «Oso inozoak izan ginen, desagertu baten anaia zela sinistu genion. Plazara etortzen zen, eta horrela joan zen amak ezagutuz eta pertsona batzuen helbideak eskatuz. Noizbait Azucenaren (Villaflor) etxera ere joan zen, eta lo egiten uzteko eskatu zion. Remo Berardo margolari gaztearekin ere hitz egin zuen; La Bocan zuen estudioa, eta haren anaia desagertuta zegoen.

«Azucenarengan lider natural bat ikusi zuen. Oso emakume ausarta zen, bere izaera erabakigarriarekin motibatu gintuen. Plazan eta ikusten gintuzten leku guztietan egon behar genuela esaten zigun. Esther Ballestrino de Careaga militante politikoa zen bere jaioterrian, eta desagertutako suhi bat eta alaba bat zituen. Maria Poncek lanerako indar berezia zuen. Bahiketa lazarri eta zorigaiztokoa planifikatzeko, bakoitzaren profila aukeratu eta taxutu zuen», gaineratzen zuen Cortiñasek, eta deitoratzen zuen ez zuela sumatu «gazte atletiko eta hezi hori halako traidorea zenik».

Guztiak ESMara eraman zituzten. Duquet eta Domon frantsesak zirenez, zalaparta handia sortu zuen haien desagerpenek Frantzian. Ardurak gainera kendu nahian, marinoek bi mojej argazki bana atera zieten, Montoneros talde gerrillariaren banderare-

kin. Gobernuaren kontrako talde batek zituela esanez eskutitz bat idaztera behar zituzten. Torturatu ostean, abenduaren 14an, «heriotzaren hegaldi» batean desagerrarazi zituzten. Egunitara, Santa Teresitako hondartzan identifikatu gabeko gorpu batzuk azaldu ziren eta hobi komun batean lurperatu zituzten.

2005eko uztailan, Argentinako Auzitegiko Antropologia Taldeari (EAAF) esker 1977an Santa Teresitan azaldutako gorpuak identifikatzea lortu zuten. Azucena Villaflor, Esther Ballestrino, Maria Ponce, Leonie Duquet eta Angela Agudenak ziren. Santa Cruz elizaren lorategian lurperatu zituzten. Jeanningros han izan zen. Meza beteta zegoen arren, Eliza Katolikoaren bururik ez ikusteak erabat mindu zuen. Nola ote zen posible gotzaindegiko ordezkariarik ez izatea bertan? Samin hori barruan zuela, 2005eko urrian, Jorge Bergoglio kardinalari, momentu horretan Buenos Airesko artzapezpikua, gutun bat idatzi zion, Erromara apezpiquen sinodoan parte hartzera zihoala baliatuta. Gutuna Bergoglio zegoen hotelean utzi zuen, bere telefonoarekin. Egun batean, haren deia jaso zuen Jeanningrosek. Eskutitza eta esandako hitzak eskertu zizkion eta desagerpen horien berri bazuela esan zion. Balles-trino lagun zuela – Bergoglioren irakaslea izen zen –, eta bi mojak eta amak Santa Cruz elizan lurperatzeko baimena berak eman zuela aitortu zion.

Zortzi urte beranduago, 2013ko martxoaren 13an, San Pedroko plazan zegoen, Bergoglio Aita Santua izendatu zuten. Horrela gogoratu du pentsatu zuena: «Eskuak burura eramane nituen. Ene Jain-

koa. Zer gertatuko da orain? Hori da pentsatu nuen. Aitor-tu beharra dut hasieran beldur pixka bat sentitu nuela». Aste-bete beranduago, apirilaren 20an, Santa Martako erresidentzian, meza batera gonbidatu zuen Aita Santuak.

ELIZAREN ARTXIBOEN IREKIERA

«Samurtasun osoz hartu gintuen. Musu bat eman zidanean, nire bihotza askatu egiten zela sentitu nuen». Handik lau egunitara, Maiatzeko Plazako Amonen presidentea den Estela de Carlottorekin, Buscarita Roa amonarekin eta Juan Cabandie aurkitutako bilobarekin batera, Aita Santuarekin bildu zen. Lapurtutako bilobak aurkitzeko Eliza Katolikoaren artxiboak eskatzeko eskatu zion audientzia horretan Carlottok. Hori egiteko agindua eman zuen Aita Santuak.

Vatikanoaren eta Argentinako Apezpiku-Konferentziaren esku zeuden artxiboen irekierari esker eta urteetako ikerketa mardul baten ostean, “La verdad nos hará libres” liburua aurkeztu zuen Eliza argentinarrak. Unibertsitate Katolikoaren Teologia Fakultateak zuzendu zuen hiru liburukiz osatuta dagoen lana. 1966 eta 1983 artean, Argentinan bizi izan zen biolentziaren eta Estatu indarkeriaren aurrean Eliza argentinarrak eta Vatika-

«Izebaren lurperatzean, eliza jendez gainezka zegoen, baina ez zegoen Elizaren ordezkariarik. Haserre eta minduta nengoen; horregatik, Bergogliori gutun bat idaztea erabaki nuen»

Jeanningrosek ESMA bisitatu zuen gertatutakoa hobeto ulertzeko. «Gidari galdetu zion zergatik egon zen Eliza militarrekin, zergatik ez zuen deus ere egin desagertuak salbatzeko»



Luna Park-era egindako bisitan, artistekin, ferietako langileekin eta gehiagorekin bildu zen Frantzisko.
Francesco SFORZA / GETTY IMAGES

noak berak izan zuten jarrera aztertzen du. Hirugarren liburukian Jeanningrosen lekukotasuna jasotzen da.

«Izeba desagertu zenean, nire anaia Michel eta bere iloba batzuk zer gertatu zen jakiten saiatu ziren, non zeuden eta ea bizirik ote zeuden. Gobernu frantsesak ere saiakerak egin zituen, baina urteetan isiltasun handia egon zen. Sorpresa hartu genuen 2005eko abuztuan Leoniren gorpuzkiak Michele emandako DNARI esker identifikatu zituztela esan zigutenean. Familia gisa hainbeste maite zuen Argentinan lurperatzea erabaki genuen. Buenos Airesera joan ginen. Antropologoen etxera heldu ginen eta Leoniren eskeletoa ikusi genuen, hezurak hautsita zituen. Carlo Somigliana auzi-medikuak azaldu zigunez, haustura horiek bat zetozen altura batetik gorpu bat itsasoren kontra botatzen duzunean sortzen direnekin».

Argentinara egindako bidaia batean, ESMA bisitatu zuen, eta Alfredo Astizen kontrako epaiketari ere izan zen. «Bere deklarazioa entzun nuen. Lau aldiz begiratu ninduen begietara». 2011n bizi osorako kartzela ezarri zioten ESMAn egin zituzten gizateriaren aurkako delituengatik.

Diktaduraren itzaletik eta elizaren isiltasunetik Jorge Bergoglio eta ondoren Frantzisko Aita Santuarekin sortu zen harremana sendotuz joan zen. Asteazkenero, Jeanningros Aita Santuaren audientzietara joaten zen Vatikanoan, askotan sexu langileak eta transexualak lagunduta.

Jeanningros Erromatik 30 kilometrotara bizi da, Ostiako Luna Park jolas parkean, karabana batean. Zirku eta ferietako munduko pertsonekin lan egiten du, haiei laguntza eskainiz. 2024ko uztailaren 31n, Frantziskok parkea bisitatu zuen bere oporretan.



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA
Arkitektoa

Arkitektura eta medikuntza

Bioeraikuntza eraikitzeke modu alternatibo bat da; gutxinaka hedatzen ari den eraikuntza eredu bada ere, ohiko eraikuntzaren nagusitasunaren azpitik dagoena erabileran. Bioeraikuntzak espazioen osasunaz hitz egitea ekarri du arkitekturara, besteak beste. Bio-tomatea jatearen aukerarekin gertatzen den antzera, bio-espazioetan bizitzea osasungarriagoa baita. Gertuko material naturalekin egindako espazioak eraikitzea esan nahi du, kimikorik gabeko espazioetan murgiltzeko. Sentsibiltate “berri” honek gogorarazten digu etxeetako margo plastikoaren erabilera gure arnasketarako ingurunerako bezain kaltegarria dela. Espazio bat egiteko unean aukeratzen dugun materialak eraginak ditu gure osasunean eta ingurune naturalean, inguruneaz gehiago hitz egiten bada ere giza gorputzaren ongizateaz baino.

Mediku naturalista bati irakurri diot medikuntzako ikasketa ofizialean ohiko medikuntzako tratamenduak irakasten direla, kimika sintetikoetan oinarriturikoak. Osasunaren zaintzarako bestelako eredu naturalagoak ofizialtasunetik kanpo ikasi behar dira, ze, diotenez, zientziaren babesik eta frogarik ez dute. Medikuntzaren egoera arkitekturarenarekin parekatu daiteke; arkitekturako ikasketetan ohiko eraikuntza irakasten da batik bat. Hormigoi armatua, altzairua eta egur laminatuzko egiturak eta industrializatutako sistemak. Irakasten zaigu eraikuntza hegemonikoa, gehien erabiltzeagatik jakin beharrekoa. Irtenbide profesionala duen ikasketa, argudiatuko zaigu. Ingurunearen zaintzari begira, eraikuntzaren ikasketetan bioklimatika irakasten da, berriztagarrien instalazioaren nagusitasunarekin, berriz ere, industriako sektoreak babesten dituen gailuen inguruan.

Bioeraikuntzari buruz esaten zaigu esperimentalegia dela, artisaugintzaren es-

parruan sartzen dela; eraikuntza tradizionalarekin lotzean, beste garai bateko eraikuntza ereduak zakuan sartzen da, esan gabe baina argi utziz «atzerakoia» dela. Ohiko eraikuntzak hartzen du garapenaren ikurra. Bioeraikuntzan ezagutza espezifiko izateko, eskola ez ofizialeko masterak egin behar dira, edo autoeraikuntzako ikastaroetan ize-na eman. Ohiko eraikuntzaren eta bioeraikuntzaren arteko desberdintasun nagusietako bat da, lehena industrializazioaren eta estandarizazioaren prozesuetan txertagarria dela, eta bigarrenak zailtasun gehiago dituela (geroz eta eraikuntza produktu industrial gehiago bioeraikuntza lez saltzen diren arren). Farmaziaren industrian eta eraikuntzaren industrian, ekonomiek gidatzen dituzte medikuntza zein arkitekturaren ikasketak, eta gorputza eta espazioaren ulermen konkretu bat osatzen dute.

Bioeraikuntzak, berriz, ekonomiaren sistematik desbideratzen gaitu, berez, bertako material merke eta eskuragarriekin egitean datzalako. Lurra, harea, karea, kalamua, ardien ilea, lastoa, zuntzak, pigmentu naturalak... Ikerketa ofizialak ere ari dira biomaterialak industriarako aztertzen, eta orduan, bioeraikuntzaren esentzia zatiren bat galduko dute bidean, bio-zigilua eskuratzean. •



Ilustrazioa: Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } Iraitz MATEO GOGORZA

Bihotzaren antza

Kamiso urdin bat zuen, motots bana zinta urdinarekin lotuta buruaren alde banatan, eskailera berde baten gainera igo eta lotarako koloretako txapela bat zuen ilargi irribarretsu baten ondoan kantatzen zuen. Neska hori izan nahi nuen nik, neska hori izaten saiatzen nintzen egunero gurasoen etxeko egongelan.

«Egia da Euskal Herriak zerutik begiratuta bihotzaren antza duela? Izar batera igo eta handik ikustea gustatuko litzaidake». Horixe zen introa, protagonista on baten gisa, etxekoak isilarazi eta hori ere esaten nuen, noski. Momentuan ez nuen ulertuko, Euskal Herriaren erreferentziak baino bihotzarenak harrapatuko ninduen ziur asko, baina uste dut gorputzeko atalen batean gorde eta tarteka oihartzun egiten dizuten esaldi horietako bat dela, hara eta hona eraman dudana bizitza osoan.

Atzean ikurrin bat zuen –horretaz ez nintzen oroitzen berriro bideoa ikusi dudana arte–, eta izar aurpegia zuten dantzariak zituen ondoan –hauek ere ez nituen memorian, geroa ikasi dut, bazterretara begiratuta–.

Bat, bi eta hiru, musika sartu eta koreografia hasi: besoak ezker-eskuin. Kantuaren letra bai, hori gogoan nuen: «Ilargian kulunka denok kantari, keinuka lotan dagoen guztiari, egunsentian kukulumusuak, eguzkiarekin batera, argituko dugu Euskadi».

1997ko ikuskizuna da, Tantaka Yotanka –urteak ere harritu nau, baina gure amak esaten du inoiz zerbaiten fana izan banaiz, Takolo, Pirritx, Porrotx eta Mari mototsena izan naizela, eta pentsatzen dut jaio nintzen urteko emanaldiak gerora ere behin eta berriro performatuko nituela–. Bestelako Euskal Herri bat argitzeko bidea marraztu digute urteetan zehar: baserriko bizitza gerturatu digute, Kintxo Barrilete ezagutarazi, herrietako festen auzolana erakutsi, familia milakoloreak aurkeztu, herri ijitoari maite zaitut

esan, pirata ausartei lekua egin, amalurra maitatu, bizipoza zabaldu... Sentitu, pentsatu, ekin!

Gogoratzen dut bi aste lehenago kiroldegian ilara egin izana sarrerak eskuratzeko, eta «hamalau lo» urduri igaro ondoren sentitutako poza, kiroldegian lurrean esertzeko jarritako alfonbren gainean. Pista eta harmaila bereizi gabe, une batez ume bakoitzaren zirkunstantziak atean utzi, eta guztiak berdintzen gintuen horrek, ondoreneko muxuak ere guztiontzat ziren eskuragarri.

Behin baino gehiagotan azaldu dute protagonistek herri mugimendutik jaio, eta herri mugimenduan dabilzala, Euskal Herriko ume, guraso eta gazteentzat lan egiten dutela. Eta sarritan, beraiek elkartu dute herri hau, kiroldegiko pista barruan zein kanpoan. Txostenetatik harago doa Katxiporretakoen herrigin-

«Sarritan beraiek elkartu dute herri hau, kiroldegiko pista barruan zein kanpoan. Txostenetatik harago doa Katxiporretakoen herrigintza»

tza, beste behin ere. Eta halaxe, beraiek transmitituta-ko baloreekin, atzean auzolan erraldoia duen festa antolatu dute gaurkoan BECen.

Lankide batek pasa den astean gogorarazi zidan ez garela oso abilak aitortzak hil aurretik egiten. Eta esango nuke lagunekin ospatzeko festa bat baino ezer hoberik ez dagoela. Horregatik, eskerrik asko gure performanceak ahalbidetu dituzten guraso eta zaintzaile guztiei, baita larunbat honetan Barakaldon dauden eta urte osoan horretarako lanean ibili diren parte hartzaile eta antolatzaile guztiei ere.

Eskerrik asko Pirritx, Porrotx eta Mari Motots. Eta eskerrik asko Aiora, Joxe Mari eta Mertxe, zapata handien barruan, bihotz erraldoiak daudelako. Argituko dugu Euskal Herria, maite zaituztegu! •

LAMIA BBK WOMEN HOSTEL

Emakumeentzako soilik den eta izaera soziala duen ostatu bat Bilbon

 **JENDARTEA** / Nerea GOTI

Bilboko Errekalde auzoan, soilik emakumeentzako den ostatuak zabaldu ditu ateak. Lamia BBK Women Hostel izena du eta jarduera turistikoaz gain konpromiso soziala duen egitasmoa ere bada. Bidaia, ikasle eta etxerik gabeko emakumeentzako topagune dira jada horma horiek, espazio gozo eta seguru bat denentzat.

Apirilaren lehen egunetan zabaldu zituen ateak Lamia BBK Women Hostelak, izaera soziala daukan proiektu turistikoak. Bilbo bisitatzen duten emakumeak eta kale egoeran dauden emakume bilbotarrak hartzen ditu egitasmo berritzaileak, izaera turistikoa eta helburu inklusiboa uztartuz. Esperientziak aste batzuk baino ez ditu eta arduradunak pozik daude jasotako harrerarekin, baita emakumeen aldetik jaso-takoarekin ere. Kontatu dutenez, auzokideek ostatua eza-gutzeko aukera izan dute, eta oso pozik agertu dira proiektu berritzailearekin.

Aste Santuko aurreko egunetan izan da GAUR8 bertan, eta arduradunek diotenez, erreserba batzuk dituzte jada opor egun nagusiei begira. Ostatuaren berri urrun heldu da, diotenaren arabera.

Bazterketa egoeran dauden pertsonen ondoan lan egiten duen Bizitegi elkarteak dago proiektuaren atzean, eta BBKren laguntza ekonomikoa du proiektuak. Espazio zabal eta gozo bat zabaltzen da begien aurrean ate nagusia igarota. Hijaba daraman neska bat dago lanean harreran, praktikak egiten ari dela azaldu du. Ostatuaren lehen espazio komuna egongela handi bat da, gune zabal bat mahaiak eta aulkiak dituena, baita sofa eta besaulki batzuk ere. Erabilera anitzeko espazio gisa pentsatuta, ate irristarien itxierak banatzen ditu espazioak, eta jarduerak egiteko moduko eremu zabal bat eskaintzen du.

tuaren lehen espazio komuna egongela handi bat da, gune zabal bat mahaiak eta aulkiak dituena, baita sofa eta besaulki batzuk ere. Erabilera anitzeko espazio gisa pentsatuta, ate irristarien itxierak banatzen ditu espazioak, eta jarduerak egiteko moduko eremu zabal bat eskaintzen du.

Maria Mitxelena Lamia BBK Women Hosteleko arduraduna eta Aya Yassim erabiltzailea.
Aritz LOIOLA | FOKU



Janaria prestatzeko gela handi bat du, office moduko bat, janaria berotzeko aukera ematen duen beste gela bat, eta korridore luze batean banatzen dira gelak. Hamabost gela dira eta, guztira, 64 ohe eskaintzen ditu, berezko komunekin, kasu askotan.

Ohe bakarrekoak, lauakoak, zortzikoak eta hamabikoak biltzen ditu, eta horietako batzuk ezinduentzat egokituta daudela zehaztu dute. Ohe bakoitzak, gainera, argi propioa eta entxuferako sarrera propioa dauka. Askoz ohe gehiago kabitzen ziren gela handi horietan, baina diseinuak eroso mugitzeko eta egoteko espazioak lehenetsi dituela azaldu dute. Era berean, oheko arropa zuria, egur argia... Eta argitasu-

na bereziki zaindu dute, leku atsegina sortzeko.

Mahai zabalak dituzte gela guztiek, atsedeen hartzeko aulkiak.... Eta itxura eta espazio handiei begira, soilik lo egiteko eta dutxa hartzeko dauden batailako ostatuetatik oso urrun dago Lamia BBK Women Hostel.

Bertan, egonaldiak egingo dituzte Bilbon turismoa egin nahi duten emakumeek, eta espazio komunak erabiliko dituzte ostatuan bertan, Bizitegi elkartearen Borobiltzen proiektuaren barruan denbora batez ostatu ematen dieten emakumeek. Kale egoeran dauden lagunentzako da aterpe, etxe moduko zerbait, «benetan bizi ahal izateko».

Errekaldeko parkearen aurrean kokatuta dago Lamia BBK Women Hostela. 1a 700 metro karratuko lokal horiek BBKren Errekaldeko haurtzaindegia izan ziren garai batean. Izan ere, BBK eta Bizitegi elkartearen proiektua da ostatua, plaza turistikoak eta egoera zaurgarrian dauden emakumeentzako bizitokiak eskaintzen ditu. Soilik emakumeentzat den Euskal Herriko lehen ostatua da hau, «eta esango nuke Estatu osoan ere horrelakorik ez dagoela», gaineratu du Maria Mitxelena ostatuaren arduradunak.

Monika Fandiño BBKko arduradunak azaldu duenez, behar desberdinei erantzuten dien proiektua da. Alde bate-tik, turismoaren ikuspuntutik kalean bazegoen eskari hori, emakumeentzako ostatu baten beharra. Bestetik, helburu sozial bati erantzuten dion ekipamendua sortu da.

Esperientziak ez du emakume horien jatorria eta erabilera ezberdintzen, bidaiariak eta Borobiltzen programan bizitza

proiektu berriak lantzen ari diren emakumeak elkarrekin daude, harremantzen dira, hitz egiten dute eta espazioak partekatzen dituzte. «Hemen norberak bere bizitza eta planak egiten ditu eta harremanak egin ditzake, hitz egin... elkarbizitza arrunta da, eta espazio seguru bat da emakume guztientzat, edozein dela ere haien egoera», nabarmendu dute.

Ostatuaren eskaintza jarduera ezberdinekin jantzi nahi dute aurrerantzean. «Hilean behin feminismoarekin eta berdintasunaren inguruko guztiarekin lotutako jarduerak egin nahi ditugu, arlo komunitariotik landu nahi ditugu, baina proiektuaren ideia globalagoa da», diotenez.

Ateak zabaldu berritan, 40 erreserba zituen jada ostatuak Aste Santurako. «Estatutik kanpokoak izan dira, Europatik, heldutakoak batez ere. Austria, Alemania, Italia eta Portugaleko bidaiariak» izan dira hurbiltzen lehenak, baina ez bakarrik, AEBetakoak ere izan baitituzte, zehaztu dute proiektuko arduradunek. Aste Santurako Estatukoak dira jasotzen dituzten eskaera gehienak.

BIDAIARIEN ESKAERA ZAHAR BAT

Ostatuaren erabiltzaileen profila gazteekin lotzen ohi dugu, baina arduradunen harridurarako, «momentuz, gehienak bakarrik bidaiatzen duten emakumeak dira», ohe bakarreko erreserba ugari jaso baitituzte. Talde gehiago espero dituzte maiatzetik aurrera. Izan ere, garai horretarako, 12 oheren erreserba bat dute jada, «eta pentsatzen dugu asteburuetan Bilbora turismoa egitera datozen kuadrilla ugari mugituko direla, baita Aste Nagusian ere; ziur aski, kua-

«Emakumeentzako ostatu inklusibo» gisa deskribatzen du proiektua Maria Mitxelenak, «gune seguru bat, komunitatearekiko konpromisoa garatzeko asmoa duena»

Mota honetako bakarra da Euskal Herrian, eta bidaiarien artean dagoen eskaera zahar bati erantzuten dio: «gela mistoetan ezezagunekin lo egin nahi ez duten bidaiari asko dago»

drilla asko izango ditugu», komentatu du Fandiñok aurreikuspenen inguruan.

Azaldu du, gainera, emakumeentzako espazio turistikoaren beharra ez dela gaur egun sortutako zerbait. Azaldu dutenez, bakarrik bidaiatzen duten emakumeen eskaera zahar bat da hau. «Aterpe normal batean agian gela misto batean egin behar duzu lo, eta jende ezezagunarekin lo egin behar duzu, orduan ostatu askotan emakumeentzako gelak egokitu dituzte eskaera horri erantzun ahal izateko», azaldu du Fandiñok. Turistek egonaldi labur bat egin eta alde egiten dute, baina Lamia izeneko ostatu horretan badira denboraldi batez bertan bizi diren emakumeak.

Aya Yassim Bizitegi elkartearen Borobiltzen proiektuan parte hartzen duen emakumeetako bat da. Ostatuan bizi da, beste emakume batzuekin batera. GARARI kontatu diotenez, sei urte daramatza Bilbon. Euskal Herrira etorri aurretik Ingalaterran egon zen, Ryanair konpainian lanean, hegaldi-azafata zen bertan. Bilbora etortzea erabaki zuen marokoarrak.

Lanpostu bat eskuratzeko bidea hasteko moduan dagoen galdetuta, azaldu du ez dela batere erraza pertsona migranteentzat. Paperak izateko bi urte pasatu behar ditu



Atsedenerako duen espazioetako bat. Aritz LOIOLA | FOKU



Emakumeentzako ostatu honek 15 gela ditu, ohe kopuru ezberdinekin. Aritz LOIOLA | FOKU

bertan erroldatuta. «Oso pozik» agertu da, halere, Lamia ostatuak ematen dion aukerarekin, kalean egoera oso bestelakoa izango litzatekeelako eta bizitza proiektu bat garatzetik urrunduko lukeelako. «Beste emakume batzuk ezagutu ditut, turismoa egitera datozen emakumeak ezagutu ditut. Hemen dauden bitartean azaltzen diet nola funtzionatzen duen makinak, sukaldeko gauzek, komunak non dauden... laguntzen diet gauean, inor ez dagoenean» kontatu dio GAUR8ri.

Ostatuan egon ahal izatea sekulako laguntza da bera bezala etxerik ez duten emakumeentzat, herrialde ezezagun batean bizitza antolatzeke beharrezko lasaitasuna ematen die, onartu duenez. «Kalean egotea oso zaila da, kalea beldurrez eta erronkez beterik zegoen egunero, eta oso arriskutsua da hori neska baten tzat. Arriskutsua da emakumeentzat eta gizonentzat, baina batez ere emakumeen kasuan. Kalean ez dago jatekorik, bilatu egin behar duzu, bizitza bilatu behar duzu egunero, baina ostatuan lasai zaude, eta bizitzan pentsatzen has zaitezke», dio Yassim gazteak.

EMAKUME ELEANIZTUN HORIEK

Bizitegiren proiektuari esker aterpea aurkitu duten beste emakume batzuen ondoan bi zi da Yassim, eta hori ere abantaila da harremanak egiteko orduan. Harekin izandako solasaldian, Maria Mitxelenak eskatu dio heldu ziren lehen egunean kantatu zuten abestia gogoratzeko. Oroitu duenez, emakume guztiak elkarrekin sartu ziren lehenengo egunean, eta kantu bat egin zuten. «Marokon, aldaketa bat dagoenean, jaiotza bat egon de-

nean... zoriontasun une horiek ospatzeko kantatzen dugun abesti bat da, eta egun horretan gauza on bat ospatu nahi genuen», azaldu du gazteak, eta erantsi du kantatu zutela «azkenean lo egiteko eta benetan lasai egiteko leku bat genuelako».

Hajar Taoussek ostatuaren harreran egiten ditu praktikak. Zuzendaritza laguntzailea izateko ikasketak egiten ari da eta maiatzaren 15era arte egon behar du lanean harrera zerbitzuan. Kontatu duenez, oso esperientzia ona izan da eta gauza asko ikasteko balio izan dio, kudeaketari dagokionez. «Baina bereziki gustatu zait proiektua, emakumeei laguntzen dielako, hemen lasai sentitzen dira», adierazi du. Aurretik formazioa egin du merkataritzan. 26 urte ditu, bi urte daramatza Bilbon, eta arabiera, gaztelania, frantsesa eta ingelesa hitz egiten ditu.

Ostatuko arduradunek nabarmendu dutenez, emakume eleaniztun asko eta formazio

Ostatuak atseden hartzeko duen espazio zabaletako bat, irudian.
Aritz LOIOLA | FOKU



handikoak daude egoera zaurgarrian. «Oso garrantzitsua da hori azpimarratzea, uste oker asko dagoelako egoera zaurgarrian dauden emakumeen inguruan, eta garrantzitsua da argitzea», dio Mitxelenak.

KOMUNITATEAREKIKO KONPROMISOA
Proiektuak uztartzen dituen arima bi horien ondoan, bidarientzako espazio seguru bat eskaintzea, duen izaera soziala eta komunitatearekiko duen konpromisoa gehitu ditu Maria Mitxelenak. «Alde batetik, emakume bidaiariak daude hemen, emakume langileak, emakume

ikasleak eta Borobiltzen programako emakumeak», dio arduradunak. Nabarmendu duenez, lekua pentsatuta dago kalitatezko zerbitzu bat eskaintzeko emakume horiei guztiei, «guztiei», eta erronka ez horretara mugatzeko. Asmo gehiago dituzte mahai gainean, duen izaera sozial horrekin lotuta, helburua lanpostuak sortzea baita, zuzenekoak, ostatuaren plantillaren bidez, eta laneratze enpresak kontratatuz.


Erronka «izugarria» da, azpimarratu duenez, baina baikor izateko arrazoi asko dago, batez ere proiektuak izan duen harrera ikusita, auzotik bertatik hasita. Ideia, gainera, jarduera ezberdinak antolatzea da, hilero feminismoarekin edo berdintasun arloarekin lotutako edukia eskaintzea... Aipatu du, gainera, jende asko hurbildu dela egitasmoa ezagutzera. Orain ardatz bietan murgiltzen den egitasmoa garatu behar da, hor dago proiektu turistiko berritzailearen erronka.

64 lagunentzako aterpe turistikoa da Errekaldeko parkearen aurrean kokatuta dagoen ostatu berri hau, eta auzokideen aldetik jasotako harrera ona nabarmendu dute

Bertan aterpea aurkitzen duten emakume guztientzako kalitatezko zerbitzu bat ematea da asmoa, eta komunitateari eduki berriak eskaini nahi dizkiote, jarduerak...



Ostatuak eskaintzen dituen gela independenteetako bat, irudian. Aritz LOIOLA | FOKU



Janaria berotzeko instalazioak. Aritz LOIOLA | FOKU

«EMAKUMEAK EZ DIRA ETZATEN KALEAN, BANKU BATEAN ESERTZEN DIRA»

Helburu sozial nabarmena daukan jarduera turistikoa kale egoeran dauden emakumeei erantzun bat ematearen beharretik sortu zen, Bizitegi elkartearen Borobiltzen ekimenari esker. Esperientzia, errealitatearen behaketa eta horren inguruko hausnarketa daude eraikitzen joan den proiektuaren oinarrian.

Errealitate horretara gerturatzeko, proiektuaren buruan dagoen Sonia Gorbeñarekin hitz egin du GAUR8k. Kalean lanean ari diren profesionalek detektatu zuten etxegabeentzat zeuden ostatu-baliabideak «guztiz maskulinizatuta» zeudela. Izatez mistoak ziren, baina emakumeek ez zituzten horiek erabiltzen. «Soldata-arrakalarekin... emakume gehiago bagara pobrezian gaudenak, zergatik ez gaituzte kalean ikusten? Alde batetik, ez zegoen emakumeentzat bakarrik zen baliabiderik, iristen joateko; espazio seguru eta bero bat aurkitzeko, beste batzuekin batera

ikusi ahal izateko... batzuetan egoera horietan bakarrik zaudela pentsatzeko joera izaten baita». Kontuan hartu behar da –zehazten duenez– «emakumeak, kalera ateratzen garenean, gizonak baino askoz ere hondatuago gaudela. Gai gara nola edo hala jasateko, askotan gure seme-alabengandik ez bereizteko, zeren hori izaten da gure beldurretako handi bat. Eta gero, kale egoeran dauden emakumeek pairatzen duten estigma dago, horregatik jasaten ditugu harreman oso kaltegarriak eta oso toxikoak kalean bukatu aurretik».

Egoerari buruzko ikerketa bat burutu zuen Bizitegik Deustuko Unibertsitatearekin batera, eta ondorioetan beharra azaleratu zen. Horrela jaio zen emakumeentzako eguneko zentro bat. Izugarria izan omen zen erantzuna. Baliabideen artean zituzten pisuak ere dedikatu zituzten, «oso denbora gutxian bost pisu bete genituen», azpimarratu du Gorbeñak, eta «gaur egun, 22

egoitza-plaza ditugu, horietako hamabi ostatuan daude orain, eta pasa den urtean 127 emakumeri lagundu genien». Zifrak erakundeek ofizialki argitaratzen dituztenetatik urrun daude, eta arrazoi bat dago.

«Etixerik gabeko emakumeak normalean ez ditugu ikusten, ez direlako etzaten kalean, eserita egoten dira banku batean, eta eguerdiko 2.00etatik 6.00etara etzaten dira», dio Gorbeñak.

Arazoa pobrezia eta familia desegituratuekin lotzen dugu sarritan, baina kasuistika oso anitza da, nabarmendu duenez: «Formazioa eta gaitasun handiak dituzten emakume nahikotxo dago, hizkuntza ezberdinak hitz egiten dituztenak...», askotan lan bat aurkitzeko egoeran egon litezkeenak, baina atzerriartasun lege espainola da horretarako oztopo, gutxienez 2 urte erroladatuta egon behar baitira. Bizitegik, gainera, eguneko zentro bat du, goizetik iluntzera zabalik egoten


dena. Bertan, kozinatu, dutxatu, arropa garbitu... egiten dute. «Eta hemen inork ez du NANA edo pasaporteak erakutsi behar, ezta bere bizitza kontatu behar ere».

Horrelako baliabideek, baita ostatuak berak ere, duten garrantzia nabarmendu du, atsedean hartzeko leku seguruak direlako, «antzeko errealitateak dituzten beste emakumeekin harremanetarako lekuak, elkarrekin barre egin eta negar egiteko lekuak».

Bizitegik, gainera, osasun arreta jasotzeko beharrezko tramiteetan laguntzen die, eta Gorbeñak dioenez, «oso harreman ona» dute gizarte-larrialdietarako laguntzak kudeatzen dituzten langileekin.

Jakintza horrekin guztiarekin abiatu zen lehen esperientzia alokatutako ostatu batean. «Ikusi genuen, emakume bat sartzen denean, ez dutela jakiten nor den turista, hezitzailea, etxegabea... Begirada garbia da, estigma desagertzen da».

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS



Rich Peppiatt-ek idatzi eta zuzendutako "Kneecap" filmak izen bereko hip-hop talde irlandarraren benetako istorioa kontatzen du. Belfast mendebaldeko hiru gaztek, gaierak bizi duen bazterkeriarekin gogaituta, rap talde bat sortzea erabaki zuten, Irlandako hizkuntza aldarrikatu eta gazteen artean zabalatzeko asmoz. Hasieran proiektu apala zenak, ordea, sekulako arrakasta izan du nazioartean.

Liam Óg Ó Hannaidh "Mo Chara", Naoise Ó Cairealláin "Móglai Bap" eta JJ Ó Docharthaigh "DJ Próvaí" dira 2017an abentura horri ekin zioten hiru gazteak, eta 2024an estreinatutako filmean bakoitzak bere pertsonaia antzezten du. Irlandako iparraldearekin lo-

«KNEECAP», EUSKARAZ

Talde irlandarraren ibilerak kontatzen dituen filma, euskarazko azpтитuluekin

📁 **ZINEA** / Asier Aiestaran

Kneecap musika talde irlandarra hizpide bilakatu da berriki komunikabideetan Israelen jokabidea salatzeagatik jaso duen jazarpena medio. Hip-hop-a lantzen duen Belfasteko hirukote honen istorioa "Kneecap" izeneko filmean jaso zuen Rich Peppiatt zuzendariak, eta euskaltzale talde batek azpтитuluak euskaratu ditu.

tura oso estuak dituen Michael Fassbender aktore eza-gunak ere parte hartzen du.

Drama eta komedia nahasten dituen filmak Belfasteko testuinguru politikoa, bertako egoera soziolinguistikoa eta industria musikalaren barrunbeak erakusten ditu, baina be-

tiere bizitza abiadura handian eta gizartearen arauetara ihes egin ez nahi duten gazte batzuen ikuspuntutik.

Lantzen diren gaiek Euskal Herriaren eta euskararen ikuspuntutik duten interesak bul-tzatuta, eta filmak duen balio zinematografikoa ere kontuan

hartuta, euskaltzale talde batek pelikularen azpтитuluak euskaratzea erabaki du. Auzolanean egindako lana izan da, eta erakunde desberdinekin lortutako akordioei esker, filma Euskal Herrian ezagutarazteko aukera emango du.

AUZOLANAREN EMAITZA

«Egia esan, batek baino gehiagok izan genuen bat-bateko bulkada hori: filma ikusi, musika taldea ezagutu eta taldeari buruz irakurtzen hasi, normalean musikazalea edo zinemazalea denak egin ohi duena, are gehiago gaur egun eskura ditugun informazio bide guztiekin. Azken batean, pentsatuta pelikula honek gurean zabaltzea merezi zuela. Eta hizkuntzarekin lotura estua duen istorioa izanik, merezi zuela bertsio originalean ikustea», azaldu digu Patxi Gaztelumendik, euskaratze-



prozesuan parte hartu duen kideetako batek.

«Zinema pantaila gehienera, Hego Euskal Herrian behintzat, bikoiztuta eman ohi da», gehitu du Gaztelumendik zine aretoei dagokierik. Baina streaming plataformek beste aukera batzuk eskaintzen dituzte: «Hego Euskal Herrian Filmin-en ikus daiteke. Hasieran espainolezko bertsoia zegoen. Baina originala ere berehala egon zen eskuragarri, espainolezko zein katalanezko azpitoluekin».

«Orduan, *azpitolueak.eus* webguneko arduradunekin harremanetan jarri ginen eta beti egin ohi duten prozedura jarri genuen martxan», jarraitu du larrabetzuarrak. «SRT deitzen den artxibo hori jaitzi, azpitolueak lerroka idatzita dituen, irudiekin sinkronizatu ahal izateko denbora kodeekin, eta auzolanean euskaratzen hasi ginen. Telegram talde bat sortu genuen eta dozena bat lagun jarri ginen lanean. Bakoitzak 200 bat lerro eginda berehala euskaratu genuen, aste batean edo bitan».

HARRERA BIKAINA

Pelikularen berezitasunek, gainera, errazagoa eta interesgarriagoa egiten zuten euska-

Irudi nagusia, hirukotea ikus daiteke, kontzertuetan erabili ohi duten janzkerarekin. Goian, filmeko bi fotograma. IRAREN eta borroka armatuaren osteko belaunaldikoak direla aldarrikatzen dute. FILMIN

ratze prozesua. «Ez da testu asko daukan pelikula bat. Musika bai, musika asko dauka eta abestiak ere euskaratu ditugu. Alde horretatik lana ez da batera zaila izan, baina bai emankorra».

Patxi Gaztelumendik *azpitolueak.eus* webguneak egiten duen lana nabarmendu nahi izan du, alde batetik. «Artxibo hori *azpitolueak.eus* webgunean eskuragarri dago beste ehunka pelikularekin batera. Hor azpimarratu behar da egiten ari diren lana, plataforma desberdin askotako hainbat pelikularen euskarazko azpitolueak hortik hartzen dira».

Eta bestetik, Filmin-ek une oro erakutsitako begirunea ere azpimarratu du. «Filmin-ek borondatea erakutsi du azpitolue horiek bere plataforman eskuragarri jartzeko, eta

halaxe egin zuen berehala. Gainera, Filmin-ek du pelikularen distribuzio eskubidea espainiar Estatuko zinema aretoetan, Hego Euskal Herrian eta Katalunian ere bai, beraz, eta filma publikoki erakusteko akordio bat lortu genuen».

Akordio horren inguruko xehetasun gehiago ere eman dizkigu: «Pantailaldiari –datorren asteartean 20.00etan emanaldia izango da Bilboko Kafe Antzokian– eta Euskaraldiari begira lortutako akordioa da, eta orain, Kultur Errotaren bitartez, pelikula eskuratu daiteke. Edozein euskal, zinemaedo musikazalek bere herrira eramanezake Oscarretara ere iritsi den film hau, nazioartean arrakasta lortu duen musika talde honen istorioa».

HIZKUNTZAREN GARRANTZIA

Filmak erakusten duen errealtateak hainbat konparaketa onartzen ditu Euskal Herrian bizi dugun egoerarekin, hizkuntzaren afera etengabe agertzen delarik. Alde horretatik, kasu honetan balio berezia du bertso originala ikusteak, pertsonaiek ingelesa eta gaela erabiltzen dituztelako, eta hizkuntzaren hautuak berak ere garrantzi handia hartzen duelako une bakoitzean.

«Ez dakit ongi dagoen guk esatea, baina Irlandara joan den edozein euskaldunek badaki bertako biztanleek ingeles berezi bat egiten dutela. Nahiko erraz antzematen da ingelesez ari dena irlandarra den edo ez. Jargoi moduko bat erabiltzen dute, are gehiago gazteen artean. Baina horrez gain, film honetan gaelikoak badu zati oso garrantzitsu bat, gure ikuspegitik oso erakargarria dena», aipatu du Patxi Gaztelumendik.

«Zenbaiti "Trainspotting" gogoratzen die, baina badu Irlandako historiaren eta izatearen ukitu bat, betiere oso modu kritikoan eta ironikoan kontatua. IRAREN eta borroka armatuaren osteko belaunaldikoak direla aldarrikatzen dute, eta horrek dakartzan ondorioak eta traumak. Hori musikarekin, drogarekin eta errebeldia horrekin lotzen da. Eta niretzat indar handia ematen dio benetako gertaeretan oinarrituta egoteak. Musika-riek beraiek egiten dute beraien papera pelikulan. Ez dira aktoreak, benetako musika-riak dira», gehitu du.

GOGOETARAKO PARADA

Istoriaren abiapuntua bera ere aski ezaguna egiten zaigu

Liam Óg Ó Hanaidh "Mo Chara", Naoise Ó Cairealláin "Móglai Bap" eta JJ Ó Dochartaigh "DJ Próvaí" dira taldeko hiru musikariak. Bakoitzak bere pertsonaia antzezten du filmean

«Kontatzen direnak euskaldunontzat oso gertukoak egiten dira. Atxilotzea pintada bat egiteagatik, poliziaren jazarpena, zurea ez den hizkuntza batean ez erantzun nahi izatea...»



«Telegram talde bat sortu genuen eta dozena bat lagun jarri ginen lanean. Bakoitzak 200 bat lerro eginda berehala euskaratu genuen, aste batean edo bitan», azaldu digu Gaztelumendik

Pantailaldiari –datorren asteartean 20.00etan emanaldia izango da Bilboko Kafe Antzokian– eta Euskaraldiari begira lortutako akordioa da. Herriz herri zabaltzeko aukera ere badago

euskaldunoi. «Pelikulan kon-
tatzen diren gertaerak euskal-
dunontzat oso gertukoak egi-
ten dira. Atxilotzea pintada
bat egiteagatik, poliziaren ja-
zarpena sufritzea, zurea ez
den hizkuntza batean ez eran-
tzun nahi izatea, eta bestelako
konplizitate batzuk. Hori beste
istorio batzuekin nahasten da,
denboran aurrera eta atzera
egiten dutenak, eta oso pasar-

te ederrak ditu. Eta pelikulak
bestela ere funtzionatzen du.
Fikzionatua balitz ere pelikula
ederra litzateke, baina hasten
zarenean taldearen diskoak
entzuten, haien mobida gehia-
go ezagutzen, are indartsua-
goa da», dio Gaztelumendik.

«Belfasten sortu zen talde
bat, gaelikoaren aldeko mugi-
menduek nolabait deitoratzen
edo baztertzen zuten hip-ho-

paren kultura horretan, eta ge-
rora masa fenomeno bat bila-
katu dena. Gogoetarako auke-
ra asko ematen ditu, ez soilik
hizkuntzaren aferari dagokio-
nez, baita musikaren arloan,
drogen aferan, historiari edota
errelatoari dagokienez ere.
Kontu asko gurutzatzen dira
oso interesgarriak direnak. Eta
pelikula batek eragin deza-
keen gauzarik ederrena hori
da, hor gertatzen denari buruz
hitz egin eta eztabaidatu ahal
izatea», gaineratu du pasioz
bizkaitarrak.

Eta euskara gazteen egune-
roko bizitzara egokitzeke au-
kera bat ere bada hau, Gaztelu-
mendiren arabera. «Uste dut
belaunaldi berriek zinema
kontsumitzeko modu berriak
dituztela: sarean ikusten dena,
plataformetan dagoena... Tele-
sailekin ere gertatzen da. Eta
hizkuntza ez da izango oztopo
jendeak jarrera hori baldin ba-
du. Politika kulturalek ez dute
asko bultzatu zineman gure
hizkuntza jaso ahal izatea, eta
azpтитuluak izango dira alter-
natiba bat horretarako».

Abiadura handian eta
jendarteko arauak
hautsiz bizi nahi duten
gazteak dira. Israelen
jokabidea publikoki
salatzeak, adibidez,
jazarpena ekarri die.
FILMIN





Leire LAREKI SANCHEZ eta Eneko MENDILUZE PLAZA
Psikopedagogo eta psikologoa



GUNETUZ
PSIKOLOGO EUSKALDUNEN SAREA
www.gunetuz.ueu.eus

Giza komunikazioaren teoria eta komunikazio ez bortitza

Gure inguruarekin nola harremantzen gara? Nola adierazten dugu gure haserrea eta mina? Nola adierazten dugu gure desadostasuna? Lagundu nahi dugun pertsonari nola erantzuten diogu, bera itxaropenik gabe eta ezinegonean baldin badago? Nola planteatzen ditugu eskaerak? Nola itzali nahi dugu sutea, sua elikatzen duen erregeaia ez badugu baztertzen?

Hizkuntza eta komunikazioa behar-beharrezkoak ditugu gure barnearen eta gizartearen orekarako. Hitzaren bitartez gure munduaren esanahia eraikitzen dugu, eta komunikazioaren bitartez gizartea eraikitzen dugu. Orain, nola adierazten ditugu gure nahiak eta beharrak? 1960 inguruan Palo Alto-ko taldeak, G. Batesonen antropologo sozial eta biologoaren gidaritzapean, giza komunikazioaren teoria kaleratu zuen. Teoria honek bost axioma hartzen ditu bere barnean.

1. Ezinezkoa da ez komunikatzea: Isilik egonda ere komunikatzen ari gara, gure presentziak munduan beti komunikatzen du.

2. Gertaeren segidaren puntuazioaren arabera komunikatzen gara. Hau da, gertaerak lerrotatzen ditugun moduaren arabera komunikatzen gara. Adibidez, bikote batean kide batek «serio begiratu nauzulako haserretu naiz» esan dezake, eta bigarrenak «haserretu zarelako serio begiratu zaitut» esan dezake gero, gertaeren segidaren ordena aldatuz.

3. Komunikazioan beti eduki maila eta harreman maila dau-de. Normalean, ez beti, harremanak edukiak baino garratzi handiagoa izaten du. Adibidez, zure bikotearen gurasoen etxera bazkaltzera zoaz eta prestatu dituzten dilistak ez dituzu batere gustuko, baina, hala ere, jan egiten dituzu, harremana lehenetsiz.

4. Modu analogikoan eta digitalean komunikatzen gara. Hau da, maila berbalean zein ez berbalean. Gainera, geure buruak komunikazio berbalari baino, ez berbalari ematen dio garrantzi handiagoa. Esate baterako, ondokoak tristura aurpegiarekin pozik dagoela adierazten badigu, triste dagoela ondorioztatuko dugu, eta ez hori bakarrik, bere egoera emozionala estali nahi digula ere antzemango dugu.

5. Beti dago elkarreragin simetrikoa eta osagarria. Botere harremana ematen da beti, parekoa, simetrikoa, edo osagarria, bat besteari gainekoa izan daitekeena.

Komunikazioaren bost axioma ezagutu eta gero, nola eraiki dezakegu komunikazio ez bortitza? 1970eko hamarkadan,

Marshall Rosenberg psikologoak, komunikazioa kontzientea-go eta eraginkorra bilakatzeko asmoz, enpatian eta errespetuan oinarrituta, metodo erraza eta praktikoa eraiki zuen: 1. Behaketa. 2. Sentimendua. 3. Beharra. 4. Eskaera.

Horretarako, lehenik, erabateko garrantzia du behaketa eta ebaluazioaren arteko bereizketa argia egiteak. Rosenberg-ek adibide xume bat jartzen du: «J. Krishnamurtiren hitz batzuk irakurri nituen, epaiketarik gabe behatzea gizatasunaren inteligentzia mailarik altuena da, hara zer-nolako tontakeria pentsatu nuen, bere hitzak epaitu nituela konturatu gabe».

Bigarrenik, gure sentimenduak onartzeko dugun zailtasuna askotan agerikoa da eta, maiztasunez, pentsamenduak eta sentimenduak nahasten ditugu. Horretarako, gure oinarritzko emozioak identifikatzea lagungarria izan daiteke, eta nondik hitz egiten ari garen adierazi dezakegu; poztasunetik, tristuratik, beldurretik edo haserretik. Gure sentimenduen identifikaziotik hitz egiten dugunean, elkar ulertzeko bidea nabarmen ireki dezakegu. Adibidez, bikotean «atzoko elkarrizketarekin triste nago» adieraztea oso lagungarria izan daiteke. Beraz, oinarritzko galdera bat: eskaera bat egin nahi dudanean, argi dut nola sentitzen naizen?

Hirugarrenik, gure beharra zein den jakitea oso inportantea da. Zein da asegabatu eta ase nahi dugun atala? Azken finean, eskaera, laugarren arloa, modu ulerterrazean egin ahal izateko, nire beharra zein den argitzea ezinbestekoa da.

Eskaerari dagokionez, amaitzeko, arduratik adieraztea inportantea da, bestela, eskaera erraztasunez exijentzia bilakatu daiteke eta biolentzia berbalean erraztasunez erori gaitezke. Gakoa norberaren behaketan, sentimenduan, beharrean eta eskaeran egongo litzateke, beraz –ikus lau adibide praktikoa GAUR8ko webgunean dagoen testu luzeagoan–. •



Nola adierazten ditugu gure nahiak eta beharrak? GETTY IMAGES

{ koaderno } Iker BARANDIARAN

Agerikoa ez den estetikaren erritmoan

Astean, *deja vu* sentsazio surrealista samarra izan dut. Seme txikia eta biok autotan gindoazela, honek, musika streaming bidez entzuteko aplikazio horietako bat baliatuta, bere gustuko kantu bat jarri du. Gaur egungoa izanda ere, eskola zaharreko tekno *matxakoia* da, eta hitzek drogen apologia ganberro eta zuzen-zuzena egiten dute gaztelaniaz, nahiko modu dibertigarrian, egia esan. Herri barrura heltzearekin bat, bolumena nabarmen igo du eta autoko leihoak topera zabaldu ditu. Ez naiz halakoekin asaldatzekoa, are gutxiago semeen kontuekin, baina sentsazioa bitxia izan da, eta ezinbestez gogora ekarri dit aspaldi urruneko *acid house* hartatik abiatuta gerora zein gogor jo zuen hemen (ere) tekno eta “bakailao” mobidak. Baziren garai hartan ostiraletik igandera bitartean etenik gabeko erritmo sarkor horretan ibiltzen ziren asko, eta horietako batzuek haien burua, janzkera eta beste “bakala” zuten. Baina erritmo olatu hark harropatu zituen, baita ere, bestelako ezauzgarri eta pentsaerak izanda ere, asteburu askotan maratoni horretara batzen zirenak, azken finean parranda bukaezinak erakartzen baitzituen. Ezagutu izan ditut, esaterako, “bakala” zantzurik izan gabe ere, igandetan gurasoen etxean goizean goiz jaiki eta haiei mendira egunpasa zihoazela esanda egun osoa diskoteka barruan pasatzen zutenak ere. Ez, ez zuten mendiko arropa janzten... edo agian batzuek bai.

Gerora, batzuen neuronak bezala mugimendu eta mobida hori diluitzen joan zen, desagertu arte, baina, nahiz eta gure artean “bakala” estetikak halako indarrik ez hartu, eta ez bilakatu hein handi batean tribu urbano horietako bat, zale asko zituen, ugari, horietako batzuk pentsaezinak ziruditenak, gainera. Eta olatua oso handia izan zen garai batean. Hain zuzen ere, denbora gutxian zaletuak pasa ziren gutxi batzuk izatetik milaka izatera. Esaterako, larunbat gauetan

Itziarko Txitxarro aretora nazioarteko taldeen rock kontzertuak ikustera joaten ginenean, handik irteetan barre egiten genien diskoteka goizaldean noiz zabalduko zuten zain zeudela ikusten genituen gajo haiei. Eta denbora laburrean pasa ginen beste aldera: haiek ziren gehiengoa eta gu lau katu. Asteburu dezentetan, ordu txikitan bakailao erritmo eta girotik at parranda egiten jarraitu ahal izateko, gure herritik 30 bat kilometrotara zeuden lokal bakanak bisitatu behar izaten genituen, halabeharrez: El Ivan, Scorpio, Troner... Gauak aurrera egin ahala, ia ez zegoen beste alternatibarik. Beste guztia tekno giroa zen.

Parranda giro hark jende oso-oso desberdina batzen zuen, estetika askotarikoa eta, era berean, ia estetikarik gabekoa. Bazirudien parranda hori egitea itxura batean “Diario Vasco” erostea bezalakoa zela. Gizartearen aurrean, askoren begietan, gauza neutroa ze-

«Hala ere, ez diot ukatuko bazuela bertute bat bereizgarria; hain zuzen ere, pentsaeraz zein estetikaz oso jende desberdina zena batzeko gaitasuna zuela»

la... ja, ja, ja. Nik ez nuen gustuko eta -nahiz eta garaian kontra egiten nion- ez ditut horren zaleak kritikatu, baina pozten naiz indarra galdu zuelako. Hala ere, ez diot ukatuko bazuela bertute bat bereizgarria; hain zuzen ere, pentsaeraz zein estetikaz oso jende desberdina zena batzeko gaitasuna zuela; eta hori ez da ohikoa, ezta lorpen txikia ere. Orain ere gazteen artean muturreko estetika gutxi ikusten dira, eta esango nuke nahikotxo parekatu dela hauen janzteko estiloa. Bozgorailua eta leihoak altxatuta bakarrik jakin ahalko dugu zer pentsatzen duten... •

«Norberak bere burua ezagutu behar du mendian, eta pausoz pauso joan»

Hernaniko Goiz Eguzki Bilgune Sozialetik egin zioten enkargua. Adineko herritarrentzat biz-pahiru ibilbide antolatuko ote zituen, samur egitekoak, Hernani inguruan. Baina, behin hasita, berak ez omen daki biz-pahiru bakarrik egiten.

Inaxio Sanzek (Hernani, 1951) 17 ibilbide labur diseinatu ditu. Badituzte ezaugarri propioak proposamen horiek: herriko plazatik abiatzen dira eta bertan bukatu; herriko bazter desberdinak ezagutzeko bidea ematen dute; ez da autorik edo bestelako ibilgai-lurik hartu behar; laburrak dira eta malda gutxikoak.

Hernaniko Udalak liburuxka batean bildu ditu eta turismo bulegoan daude eskura. Ibilaldi bakoitzak QR kode bat dauka, mugikorretik kokagune zehatza ikusi ahal izateko. Berez adinekoek eskatuta marraztu zituen Sanzek, baina adin guztietako herritarrei bide ematen die Hernani beste ertz batzuetatik ezagutzeko. Ez da kasualitatea enkargua Inaxio Sanzi egin izana; hernaniar peto-petoa izateaz gain, mendizale apasionatua da. Arnasa hartzea bezala behar du mendia.

Zuregana jo zuten Hernaniko ibilbide laburrak egiteko enkarguarekin. Ez alferrik, oso ondo ezagutzen dituzu herriko bazterrak. Egia da hori. Ni nire bizi guztian mendian ibili naiz. Egia da ez naizela Gipuzkoan bakarrik ibili, Nafarroan asko, Bizkaian gutxiago baina leku garrantzitsuetan bai, eta Araban berdin. Eta Pirinioetan ere asko ibili naiz.

INAXIO SANZ MENDIZALEA

Mendizale amorratua eta hernaniar petoa, herriko bazterrak begiz eta istorioz ondo ezagunak ditu. Hernaniko 17 ibilbide labur osatu ditu, ordu pare bateko buelta samurrak, edozeinek gustura egiteko modukoak. Herria ertz desberdinetatik ezagutzeko eta ariketa fisikoa egiteko.

Amagoia MUJIKA TELLERIA

Nondik datorkizu zaletasun hori?

Egia esan, ez dakit. Gure aita ehiztaria zen, baina nik ez dut eskopetarik ukitu inoiz. Ama baserritarra zen, Andoaingo baserri batekoa. Hara asko joaten ginen udan, eta akaso hortik etorriko zait naturarekin lotura.

Baina normalean baserritarrek ez du mendia ikusten aisialdirako aukera bezala.

Baserritarrak normalean mendia lanerako ikusten du. Gero ez du ezer jakin nahi izaten mendiaz. Baina naturarekiko ardura badauka baserritarrak normalean.

Euskalduna oso mendizalea omen. Hala ere, ez da hain aspaldiko joera.

Nire kasuan, futbolean aritzen nintzen. Inguruko herrietan izaten genituen partidak. Ni ere han sartu ninduten lagunak, baina nik nahiago nuen mendira joan asteburuetan. Hasieran geratzen nintzen Hernanin partidaren bat genuelako, baina gero eta gehiago hasi nintzen mendira joaten eta futbola utzi nuen, erabat mendian ibiltzeko. Lanera –delineatzaile bezala– eta mendira.

Baserritartzat edo kalekumetzat duzu zure burua?

Ni kalekumea naiz. Amaren baserrian dezente ibilia hama-bost urtera arte, baina kalekumea naiz. Baserri ingurutik jasoko nuen segur aski mendia ikusteko modua, natura zaintzeko modu bat.

Zer ematen dizu mendiak?

Niri dena eman dit mendiak. Desiratzen egoten nintzen as-

teburua iristeko eta mendira joateko. Emazteak ere dezente segitu dit eta horrek asko balio du. Eta gero Hernaniko Mendiriz Mendi elkartearen sartu nintzen, eta horrek ere asko markatu du nire bidea.

Elkarteko presidentea izan zinen 1990-1991 urteetan.

Bitxia da nola iritsi nintzen presidente izatera. Mendiriz Mendi Elkartea 1946an sortu zen eta ni 1990ean sartu nintzen. Emazteak Kantuz abesbatzan abesten zuen, seme-alabak txikiak ziren eta ni haiekin geratu ohi nintzen emaztea abesbatzara joaten zen bitartean. Kiroldegian elkartearen asanblada zegoen eta ni berandu iritsi nintzen, emaztea entsegutik etorri zenean. Inork ez zuen hartu nahi lehendakaritza, egoera txarrean zegoen elkartea, ez zuen apenas irteerarik antolatzen... Anaiaren kuadrillako batzuk zeuden bertan, ni baino hamar urte gazteagoak. “Hartuko al diagu guk?”, hasi ziren galdezka. “Tira, hartu behar bada hartuko dugu” esan, eta horrelaxe hartu genuen taldea. Baina segituan jakin nahi zuten presidente zein izango zen. “Inaxio, hori gure aldean serioa duk”, esan zuten. Berandu sartu bilerara eta presidente atera. Ez zait inoiz ahaztuko.

Mendi elkarateak. Orokorrean lan garrantzitsua egin dute, baina akaso ez zaie merezi adinako garrantzirik eman.

Gutxi laguntzen zaie. Eta lan handia egin dute mendizale-taldeen bultzatzen. Adibidez, ni mendian buzoiak jartzearen aldekoa naiz. Umeentzat garrantzitsuak dira. Batzuek esaten dute zertarako jarri burdi-



Argazkiak: Jon URBE | FOKU

na mendi puntan; beste batzuek ez dakite mendiko buzoiak zer diren ere. Garai batean mendietan puntan dauden buzoietan biltzen ziren txartelak jasotzen ziren. Mendi elkarteen egitekoa izaten zen buzoiak begiratu, txartelak bildu, zigilua jarri –mendia igo zutela ziurtatzeko– eta txartela bere jabeari bere herrira bidaltzea bueltan. Orduan adin guztientzat lehiaketak egiten ziren; erronka zen 20.000 metro urtean, edo 10.000, edo dena delakoa. Umeentzat ere izaten ziren lehiaketak eta nik oso interesgarria ikusten dut. Mendira igo, zure txartela bota, bueltan zigiluarekin jaso, zenbat metro egin dituzun kalkulatu... horrek xarma handia dauka. Jasotzen duenak elkartearen izena eta zigilua jarri eta bueltan bidali behar dio.

«Niretzat garrantzitsua da umeei mendia maitatzen erakustea. Baina maitatzeko, mendia ezagutu egin behar dute, eta mendian nola ibili ikasi»



Nik garrantzi handia ematen diot umeen kasuan. Nire bilobekin ikusten dut zer-nolako ilusioa egiten dien mendiko postontzian bota duten txartela etxean bueltan jasotzeak. Hemengoak orain nik bidaltzen ditut, ohitura hori galdu egin delako toki askotan. Nik ere badakit postontzi bat burdin pusketa bat dela mendian, baina, era berean, mendizale-tasuna bultzatzeko modu ederra iruditzen zait.

Mendiriz Mendiko presidente izan zinenean, lan handia egin zenuen haurrekin; ume-tatik mendizaletasuna sustatzearrionka garrantzitsua izan da zuretzat.

Bai. Guk hartu genuen garaian ez zen irteerarik antolatzen umeekin, utzita zegoen alor hori. Gure taldea hasi zen berriez. Hasieran gogorra izan

zen, hiruzpalau haur bakarrik agertzen ziren irteeretara. Baina pixkanaka jendea animatzen joan zen, autobusa antolatzeraino.

Niretzat garrantzitsua da umeei mendia maitatzen erakustea. Baina maitatzeko, mendia ezagutu egin behar dute, eta mendian nola ibili ikasi, ondo zer dagoen eta gaizki zer dagoen jakin.

Seme-alabei eta bilobei transmititu diezu mendiarekiko maitasun hori.

Bai, eta umeak gusturen taldean joaten dira, kuadrillan. Horrela joaten bazara, ez dute lanik ematen. Seme-alabak asko ibili dira mendian. Familia osoak Monte Perdido egin genuen nerabeak zirela. Niretzat oso garrantzitsua izan da seme-alabei eta bilobei hori transmititzea. Mendira joa-

teak naturara lotzen zaitu eta harremanak egiten laguntzen dizu. Baserritarrekin zeozer hitz egin, kontu batzuk esan... bada jendea nik menditik bakarrik ezagutzen dudana. Harreman berezia da.

Egunero egiten duzu bueltaxka.

Ahal badut bai. Niretzat beharrezkoa da. Besterik ez bada, egunero ordu eta erdiko edo bi orduko buelta bat ematen dut.

Mendizale-tasun klase desberdinak daude. Batzuentzat urrutira eta balentria handiak egitera joatea da; beste batzuentzat inguruko mendietan goiz pasa egitea.

Gu Pirinioetan ibili gara de-zente. Eta gero, Euskal Herriko mendietan asko [karpeta batean jasoak dauzka urtez urte egin dituen mendi bueltak.

Eguna, tokia, distantzia, non-dik abiatu den, zeinekin egin duen...]. Nafarroa oso zapaldua daukat, Gipuzkoa ere bai... oraindik ere egunero-egunero apuntatu egiten dut osatzen dudan buelta. Martxoan egun bakarrean ez naiz joan mendira, gainontzeko egun guztietan bai.

Mendiriz Mendi elkar-tearekin 25 urtetan egin ditudan mendi ibilaldi guztiak ere jasok dauzkat. Horretarako ni aurretik joaten nintzen, ibilbidea ezagutu, zehaztasunak apuntatu... gero taldean joaten ginen egunean dena kontrolpean izateko. Eta hurrekin ere egiten genituen irteerak.


Hortaz, jasota daukazu urtero egiten duzun distantzia.

Bai. Joan den urtean 2.800 kilometrotik gora egin nituen. Begiratu nuen eta Hernanitik Cadizera joan-etorria litzateke, eta beste 700 kilometro soberan.

Mendiko arropa teknikoa modan dago. Mendi buelta txiki baterako ere, ondo ekipatuta joaten denik bada...

Nik baditut Goretex onak, mendi handietan ibili naizelako eta horietan garrantzitsuak direlako. Eta mendian ibiltzeko botazalea izan naiz, orkatilak ondo lotuta ibiltzeko. Baina hemen zapatilekin ibiltzen naiz. Ez diegu garrantzi handirik eman gauza horiei.

Ni konturatzen naiz gaur egunean inoiz mendira joan ez, behin joango, eta 3.500 metroko mendi batera joan behar duela askok. "Motel, hasi hadi Aizkorrira igotzen eta gero joan hadi pixkanaka gehitzen". Garrantzitsua da non eta nola zabiltzan jakitea. Norberak bere burua ezagutu behar du mendian, pausoz pauso joan eta baliabideak



eduki zerbait gertatzen bada ondo erreakzionatzeko.

Nik zortea izan dut, ez dut ezustekorik izan mendian. Beti joan naiz ondo prestatuta eta etxetik ondo begiratuta gauza guztiak. Orain GPSa daukat, baina irteera asko eta asko GPS gabe prestatu ditut, planoarekin beti. Planozalea naiz eta ondo interpretatzen ditut.

Batzuetan kirola, mendia, jarduera fisikoa gaztetasunare-

«Beti joan naiz ondo prestatuta eta etxetik gauzak ondo begiratuta. Orain GPSa daukat, baina irteera asko eta asko GPS gabe prestatu ditut, planoarekin beti. Planozalea naiz»

kin lotzen da. Badirudi zahartzean gauza batzuk alboratu egin behar direla.

Nik, ahal badut, egunero egiten dut buelta. Norberak bere neurrian, beti egin dezake zerbait. Goiz Eguzkitik jubilatuen ibilaldiak egiten ditugu. Egitea ona da, bai gorputzarentzat eta bai buruarentzat. Niri mendiak poz asko eman dizkit. Ez naiz beti mendi berera joatearen edo ibilbide bera egitearen zalea, aldatzea gus-

tatzen zait. Bakoitzak ahal duen neurrian, baina egin.

Hernaniko plazatik abiatuta osatu dituzu ibilaldiak. Ondo ezagutzen duzu herria, majo aldatzen ikusiko zenituen ibilaldietan jaso dituzun bazter horiek.

Bai, asko. Ez da sinistekoa guk Hernani nola ezagutu dugun. Orain kiroldegia dagoen auzoan, dena baratzak ziren. Berdin Txantxillako auzoa, futbol zelaia eta baratzak. Orain zementua dago toki guztietan, asko aldatu dira bazterrak.

Euskaldunagoa al zen herria lehen?

Bai. Baina gure garaian ez zegoen ikastolarik. 1957an jaioa da nire anaia, eta belaunaldi hori da ikastolara joan zen lehena. Guk ez genuen euskaraz ikasten, baina etxean euskaraz egiten zen. Gure aitona Guadalajarakoa zen, baina gure aitak oso ondo egiten zuen euskaraz. Ama bertakoa zen eta aita asko ibiltzen zen inguruko baserrietan. Gure etxean euskararekin gogorrera gure aita zen: "Hemen euskaraz hitz egingo duzue. Ate horretatik ateratzean nahi duzuen egin", esaten zuen beti.

Gatozen Ibilbide Laburretara. Guztira 17 marraztu dituzu. Berez jubilatuek eskatuak, baina edozein adinekok egiteko modukoak.

Ibilbideak ordu eta 45 minutu eta bi ordu eta erdikoak dira, tarte horretan. Kilometrotan, zazpi eta hamar kilometro eta erdi artekoak. Igoera metatua, 170 metrotik 270 metrora. Bada ibilaldi bat, gogorrera, Hernaniko bi ermitak batzen dituen, Santa Barbara eta Zikuñaga. Hor malda gogorxeagoak daude, igoera meta-

tua 360koa dauka. Polita da ibilbide hori, baina gogorrena izango da.

Edozeinek goiz batean lasai egiteko moduko ibilbideak dira. Haurrekin ere egin daitezke. Edota edozein hernaniarrek, goiz batean ordu pare bateko buelta egin nahi duenak. Ibilbidearen parte handiena asfaltatua izaten da, nahiz eta tarteren batean mendi bidea izaten den kasu gehienetan.

Ibilbide horiek badituzte beren berezitasunak. Tokiek istorioak kontatzen dituzte, eta zuk gidatu izan dituzunean, azalpen horiek gustura entzun dituzte jubilatuek.

Badaude istorioak, bai. Adibidez, seigarren ibilbidean; Etxeberri, Arizmendi, Oriamendi, Bidaurreta, Balantxa, Antziola, Marieluts, Plaza Berri. Ibilbidearen zatirik handiena herrian ibiliko gara, eta gero, Arizmendi ondoren, Donostian sartzen gara. Gero Oriamendin, bertan lehen Karlishtaldian, 1833an, tropa ingelesa egon zen Donostia defendatzen, baina karlistek eraso handi bat egin eta ingelesen alde egin behar izan zuten. Ingeles asko hil ziren bertan eta Urgulleko ingelesen hilerrian ehortzi zituzten. Bigarren Karlishtaldian, 1875ean konpondu egin behar izan zuten eta 1936ko gerran ere erabili zuten Oriamendiko fuertea.

Zazpigarren ibilbidea, Hernani eta Astigarraga artean kokatzen da. Hori aproposa da Astigarragako historia kontatzeko. Garai batean Astigarragako herria Santiagomendiko bizkarrean zegoen, Plazaetxe dagoen inguruan. Udaletxea zen lehen. Gaur herria dagoen gunea Murgiako Palazioaren esku zegoen. Murgiako jaunek lursail handiak zituzten. Ergo-

«Ni konturatzen naiz gaur egunean inoiz mendira joan ez, behin joango, eta 3.500 metroko mendi batera joan behar duela askok. 'Motel, hasi hadi Aizkorrira igotzen eta gero joan hadi pixkanaka gehitzen»

biko zubia gurutzatzeagatik bidalaria ordaindu beharra zegoen. XIV. eta XV. mendeetan Astigarragako etxeek 500 marabedi ordaindu behar zituzten, etxeko bi emakume bidali zenbait lan egitera eta idi pare bat jarri Murgiako jauntxoaren esku. Hori zen herritarrek ordaindu behar zuten zerga.

Nik herria pixka bat ezagutzen dut eta saiatu naiz istorio desberdinak biltzen dituzten tokiak aukeratzen ibilbide horietan, herriko kontuak azaltzeko. Hernanin, adibidez, izan ziren ur eskasia zegoen urteak. Garai hartan bazen Balentin Berrondo izeneko hernaniar bat, Loidi ondoko base-rri batekoa, eta sekulako ur

depositua zeukan bertan. Oraindik han dago. Ur depositua berea zen eta Udalarekin akordio batera iritsi zen, depositu hartatik herrira ura partitzeko. Horrelako gauzak azaltzen ditut nik ibilaldi horiek egiten ditugunean.


Orain ibilbide laburrak osatu dituzu. 2010. urtean, Hernaniko Ibilbide Urdinak osatu zenituen.

Bai. Iñaki (Sanz-Azkue) semeak, Ibai Olariagak eta Joserra Diezek Hernaniko natur ondarearen ikerketa egin zuten, eta toki interesgarri denezte bildu zituzten. Proposatutako zidaten leku horiekin ibilbide sare bat osatzea, eta

ibilbideak nik egin ditut. Hernaniren historia eta ondarea biltzen dituzten ibilbideak dira. Batzuek autoz mugitzea eskatzen dute, horretan Ibilbide Laburrak eta Urdinak desberdinak dira. Baina horietan oso leku ederrak eta istorio oso politak daude.

2016. urtean Hernaniko Udalak Kirol Ibilbidearen Saria eman zizun.

Poza eman zidan. Egindako lana baloratzen dela sentituen. Hernaniko Urtekarian ere urte askoz aritu naiz koordinatzen. Herrian jende asko ezagutzen genuen eta bagenekien zer zeini eskatu. Orain usate dut hori zailagoa dela.



Agortuta

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Udazkeneko goiz batez, ia momentu berean iragarri zituzten gaur BEC hartuko duen Maite Zaitut jaialdia eta Benito Lertxundiren oholtzetako agurra. Bi iragarpenen oihartzunak gurutzatu egin ziren kultur informazioaren galaxiako punturen batean, eta, beharbada, haien irismenean ere izan zuen horrek eraginik. Itxuraz ez balirudike ere, ia berbera baita bardoaren eta pailazoen publiko objektiboa.

Zuri ere gertatuko zitzaizun, Durangoko Azokara joatea eta ez dakit zenbat pertsona nonbaitetik-bai-baina-ez-dakizu-non-dik ezagutzen dituzula sentitzea. Herri eta hizkuntza xumea baikara eta, nahiz eta gauza asko egiten ditugun, egindako hori kontsumitzen dugunon taldea ere ez baita ikaragarri handia. Antzeko jendea dela, alegia, harpidetzak ordaintzen edo liburuak erosten dituen.

Tira, kontzertu batzuk iritsi dira jendetalde horren hurrengo kapara ere. Pandemiaz geroztik, gurean kultura espazio erraldoietan kontsumitzeko joera nabarmendu dela eztaba daezina baita. Eztaba idagarria izaten ari dena horren atzean dagoen eredu da, deitu *sold out*, deitu *euskalmainstream*, deitu dena delakoa.

Uste dut, harriak botatzeko gogoz dagoenarentzat, arrakasta agerikoena beti izan ohi dela bazkarik errazena. Eta akaso ez gaude geuretik eta geurean sortutako arrakastari punta zorrozki ateratzeko posizio batean. Txikiak gara, baina eskasak ez.

Gogoeta horiek baztertu gabe, nire interesea pizten dutenak beste batzuk dira. Bat: nork egiten die kritika sutua, jarreretan eta letretan maskulinitate eredu hegemotik pixka bat aldenduta ere, publikoari erakargarri eta gustagarri zaizkion musikari gizonezkoei? Beste gizonezko ba-

tziek. Bi: nortzuk dira, nagusiki, *sold out* ak egiten dituztenak? Gizonezkoak. Hiru: zergatik lotzen dugu kapitalismo basatiarekin euskara parametro unibertsaletara eraman nahi izatea, jakin gabe, adibidez, mikroagoan dabiltzan artistek zer-nolako soldatak ordaintzen dizkieten beren lantaldeko kideei? Geure buruari txiki izatea bakarrik baimentzen diogulako.

Beti da aberasgarri fenomeno sozialez hausnartzea, baina nago makrokontzertuekin itsututa gaudela, arazoa goragokoa denean. Ni neu FOMO literarioak erasaten nau, eta idazle kuttunen azkena erosteko antsietatea sentitzen dut liburua atera orduko, nahiz eta apalategian beste 27 izan irakurtzeko. Beste bati zapatilekin gertatuko zaio; bizikletarako mailotarekin, akaso.

Udaberriko goiz batez, itzali zen mundua eta berretsi genuen nola bizi garen, une oro, gure ahalmenaz gaindi. •

Mundu kolore bakarraren aurrean, ortzadarra!

Ohitu egin gara azken urteotan “makro” formatuan antolatzen diren kontzertu eta ekitaldien berri izatera eta horiek kontsumitzera. Gainera, urtebeteko eta kasu batzuetan bi urteko aurrerapenarekin! Hau da, gaur erosi behar dut (bestela agortuko direlako sarrerak, nahiz eta bigarren kontzertu bat iragarri lehenengo honetakoak saldu eta segundotarra) datorren urteko kontzertu baterako sarrera! Milaka pertsonako aforoa duten espazioetan *show*-ak dira orain antolatzen direnak, beste formatuen kalterako. Ez, ez dut meloi hori gaur irekiko, nahiz eta puf! hausnartzeko asko dugun!!

Gaur, maiatzaren 3a, horrelako beste show bat dugu horrelako espazio erraldoi batean, eta bai, aspaldi iragarritakoa. Baina gaurkoak bai merezi duela horrelako zerbait, herri omenaldi hau inork merezi badu haiek direlako.

Urtetan plaza txikietan esan diegu maite ditugula eta batez ere haiek esan digute guri maite gaituztela, onenetan eta txarrenetan beti egin dute aurrera beraiek bakarrik dakiten moduan; elkartasunarekin, konpromisoarekin, umorearekin, enpatiarekin, gertutasunarekin, aldarrikapenekin... hau guztia eta gehiago batzen duen hitz bakarrarekin: maitasunarekin.

Hori izan da pailazo hauen motorra. Ehunka abestiren bidez ehunka mundu erakutsi dizkigute. Hamaika gai (asko haurrekin hitz egiteko zailak direnak) tratatu dituzte sentsibiltate ikaragarriarekin. Haurtzaro eta ez hain haurtzaro eder bat eskaini digute. Ez, ez dira pailazo soil batzuk, bizitza ikusteko eta bizitzeko tresnak eman dizkiguten pertsonak dira, ongi pasarazteaz gain irakaspen itzelak eman dizkigutenak. Pentsatu, sentitu eta ekin ez baita haurtzaroan soilik egin behar.

Aiora, Joxe Mari eta Mertxe, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, eskerrik asko eta maite zaituztegu! •

Miren AZKARATE
BADIOLA



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

«The Pitt» eta medikuntza telesailen bilakaera

HASTAPENAK


Biziki interesgarria da telesail mota hauen garapena eta bilakaera aztertzea, aukera ematen duelako telebistaren bilakaera soziala, kulturala eta teknologikoa ulertzeko. Serie mota hauek 50-60ko hamarkadetan agertu ziren arren –"City Hospital" (1951) edota "Medic" (1954) bezalako saioekin–, estilo dokumentala zuten, eta ikuspuntu didaktikoa nagusitzen zen; beraz, telebistako fikziozko medikuntza-dramaren sorrera 60-70eko hamarkadan kokatzen da.

1956an, "Dr. Christian" iritsi zen, landatar sendagile atsegin eta maitagarriari buruzkoa. Istorioa izen bereko ele-

Gutxik espero zuten medikuntzaren munduan girtzen den telesail batek, oraindik ere, publikoa harritzeko eta harrapatzeko gaitasuna izatea, baina berriki amaitu den «The Pitt»-ek lortu du: Max plataformako mundu mailako izenbururik ikusienetako izatearekin batera, iruzkin eta laudorio ugari jaso ditu. Ekoizpen bikain honen aitzakiaz, genero hone-tan murgilduko gara.

berri, irratsaio eta B serieko film batzuetatik moldatu zuten. 1961ean, aldiz, arrakasta handiko beste bat heldu zen: "Dr. Kildare". 1966ra arte egon zen antenan eta bost denboraldi eta 191 kapitulu izan zituen. Arrakasta itzela izan zuen, bereziki ikusle gazteen artean, eta, batez beste bi milioi inguruko audientzia izatearekin batera, seriearekin lotutako 500.000 komiki ale inguru saldu ziren sei hilabete baino gutxiagotan.

Hurrengo estreinaldi garrantzitsuak "Ben Casey" (1961) eta "Marcus Welby" (1969) izan ziren. Istorioak nahiko lauak, kritika sozial gutxikoak, zuriak eta apur bat idealizatuak ziren





arren, izenburu hauetan guztietan medikuen dilema etikoak, gaixoen dramak eta ospitaleko bizitzaren alde emozionala azpimarratzen ziren. Medikuntza eta gizarte arazoak ere lotzen zituzten, eta apurka, garai hartan bizitza errealeko zenbait gertakari gidioletan txertatu zituzten. Argumentuak nahiko moralak ziren, eta medikuen dilemak modu baikorrean ebazten ziren. Pazienteengan baino fokua medikuengan (beti gizonetzkoak) jartzen zen; pertsona jakintsuak, autoritarioak eta moralki perfektuak bezala irudikatzen zituzten.

Hastapenetako adibideen atalari itxiera emateko, guztietan ezagunena aipatzea falta da: “M*A*S*H” (1972). Ordura arteko izenburu gehienak oso

serioak izaten ziren, eta medikuen irudiarekiko oso errespetuzkoak. Honek, aldiz, komedia eta drama nahasten zituen, eta, Koreako Gerran kanpaina-ospitale batean girotuta zegoen arren, muinean Vietnamgo Gerrari egindako kritika sakona zegoen. Sendagileak lotsagabeak, zinikoak eta nahiko hutsalak ziren: profesionalki bikainak izan zitezkeela erakusten zuen, baina pertsonalki immoralek eta kaotikoak. Ez ziren beti amaiera zoriontsuak izaten: paziente batzuk hil egiten ziren eta kirurgiak gaizki ateratzen ziren. Serie gizatiarrago eta konplexuagoei atea ireki zien.

80ko HAMARKADA

1982an estreinatu zen “St. Elsewhere” telesailak iraultza

txiki bat ekarri zuen generoan: ospitale kaotikoa erakusten zuen, mediku inperfektuak, hiltzen ziren pazienteak, eta HIESa, adikzioa eta arrazakeria bezalako gaiak jorratzen zituen. San Eligius Boston hiriko hegoaldean dagoen ospitalean girotua dago. “St. Elsewhere” (“Hor Nonbait”) izendapena AEBetan ospitale pribatuek onartu nahi ez dituzten gaixoak hartu eta haiek osatzeko baliabidez urri dauden ospitale publikoak izendatzeko erabiltzen den izendapena da.

Mota honetako telesailetan lehen aldiz narratiba korala erabiltzen hasi ziren (pertsonaia ugari eta argumentu-hari asko, aldi berean). Gaur egun oso ezagunak diren zenbait aktore ageri dira: Denzel Washington, Helen Hunt edota David Morse, besteak beste. Telesailak gai serioak jorratzen bazituen ere, komedia beltzeko une ugari zituen, baita telebistaren historiari buruzko txistek eta erreferentziak ere.

Euskaldun askok beharbada gogoratuko duten seriea da; izan ere, ETB1en euskaraz aireatu zen.

90-2000ko HAMARKADA


“ER: Urgencias” telesailak (1994, Michael Crichtonek ekoitzia) arauak aldatu zituen:

erritmo zorabiagarria zuen, el-karrizketa naturalak, kamera eskuan grabaturiko plano ugari eta medikuei denbora errealean eginiko jarraipena. Langileen estresa, akatsak edota trauma pertsonalak ere erakusten ziren.

Zazpi urte geroago iritsi zen “Scrubs”-ek (2001) umorea eta drama nahasten zituen, eta medikuntzako profesionalen beste aurpegi bat erakusten zuen. Pertsonaia berriak azaltzen ziren, bromazaleak, erritmo azkarreko elkarrizketak eta pertsonaia nagusiaren amets gisa aurkezten ziren une surrealistak.

2004an, guztiok ezagutzen duzuen beste mugarri garrantzitsu bat: “House”. Hugh Laurie aktorea izan zuen protagonista ahaztezinaren rola jokatzen, eta, Sherlock Holmes-en antzeko dedukzio ahalmenari esker, kasu mediko bitxiak eta ezohikoak argitzen zituen. Lehen mediku antiheroia dela esan daiteke. Umora beltza helduleku gisa erabiliz, medikuntzaren munduan girotutako telesailak ordura arte jorratzen ez zituzten hainbat gai plazaratzen zituen, sakonak zein polemikoak; sendagaien gehiegizko erabilera, buruko osasun arazoak, gaixotasun arraroen aurrean nola





jokatu, edota medikuen etika-ri buruzkoak, esaterako. Ekoiz-penak 177 atal eta 8 denboraldi izan zituen guztira, eta azken atala 2012an eman zuten.

“Grey’s Anatomy” (2005) eta bere drama erromantikoaren estiloak medikuntza istorioak beste maila emozional batera eramane zituen. Harreman per-sonalak jartzen ziren erdigu-nean, pertsonaien hazkundera, bizitza pribatua eta profesio-nala nabarmenduz.

ADIBIDE BERRIAK

COVID-19aren pandemia tra-ma ugaritan jorratzen ari dira, baita osasun mentalari, egitu-razko arrazakeriari edota siste-ma publikoen kolapsoari bu-ruzko gaiak ere. Azpimarratzekoa da, baita ere, errealitatearekin bat datozen pertsonaiak topatu daitezkeela, aniztasuna zabalagoa da: arraza, genero edota sexu-joe-ra guztietako protagonistak.

“The Good Doctor” (2017) eta “New Amsterdam” (2018)

izenburuek aipamena merezi dute, desgaitasunak dituzten medikuak edo osasun sistema ustelen aurka borrokatzen du-ten pertsonak erakusten di-tuztelako, baina ez dira ja-rraian aipatuko ditudanak bezain ahaltsuak.

Azken urteotako estreinal-dien artetik, “Polseres verme-lles”, “Nurse Jackie” eta, berezi-ki, “This Is Going to Hurt” eta “The Knick” nabarmenduko ditut. Azken biek, jorratzen duten gaiak harago, hizkuntza zinematografikoak eskaintzen dituen erremintak ezin hobe-to zukutzen dituzte, nortasun handikoak dira.

“This Is Going to Hurt”-ek ospitale publiko bateko obste-trizia eta ginekologia sailean mediku gisa lan egiten duen Adam Kayren egunerokoa azaltzen ditu. Hain estresaga-rria da telesailak transmiti-tzen duen egunerokoa, ezen, umore oso beltza duen kome-dia dramatikoa izateaz harago, thriller frenetiko bat baitirudi.

Mota honetako telesailetan gutxitan ikusitako sekuentzia estresagarriak eta dramati-koak ageri dira, baita zorion-tsuak ere.

Steven Soderbergh zuzenda-riak HBOrentzat sortu zuen “The Knick”, aldiz, medikuntza modernoaren hastapenetan girotuta dago; garai hartako aurrerapen zientifikoak eta medikuntza praktika gogorrek aztertzen ditu. Estilo bisual eta estetika bereziak ditu; ezohi-koa eta oso ona da, baina ez da ikusle guztientzako moduko telesaila.

«THE PITT»

Gaurko gaiaren bidea zabaldu duen telesaila aipatzea falta da. Askok uste dutenaren kon-trara, “The Pitt” ez da “ER: Ur-gencias” telesail mitikoaren sekuela edo jarraipen bat, izaeragatik hala dirudien arren. Ti-ra, izaeragatik eta batez ere di-tuen osagaiengatik: protagonistetako bat berbera da (Noah Wyle), baita sortzai-

leak ere (R. Scott Gemmill eta John Wells), eta, gainera, ospi-tale bateko larrialdi zerbitzue-tan girotuta dago.

Pittsburgh Trauma Medical Center ospitaleko larrialdieta-ko hegalean girotutako propo-samena da. Kolapsatzeko zo-rian dagoen sistema baten jarduera frenetikoa erakusten du, larrialdietako buruak (Noah Wyle) ahal duena egiten duen bitartean. Artatuak izate-ko zain dauden pazientez be-tetako ospitalea da ikusiko du-guna; behar baino langile eta ohe gutxiago daude, eta profe-sionalak alde batetik bestera korrika ikusiko ditugu.

Telesail baten eta bestearen arteko desberdintasunak han-diena istorio nagusia aurkez-teko erabiltzen den malaba-rismo narratiboa da: irauten duen hamabost ataletan, la-negun batean gertatzen dena soilik ikusiko dugu. Ez hori bakarrik, larrialdietako tal-dearen eguneroko txanda osatzen duten hamabost or-du trinkoak denbora errealean (gutxi gorabehera) azal-tzen dira. Hamabost atal, hamabost orduko jarduna. Eskema horrek tentsioa, ur-duritasuna eta larritasuna areagotzen ditu, bai pertso-naiengan baita ikuslearengan ere. Telesailak ez du etenik, erritmoa etengabea eta oso bizia da, frenetikoa.

Nahiko gordina ere bada (zentzu guztietan); hildakoak azaltzen dira, odola, zaurien lehen plano esplizituak, pa-ziente histerikoak, langileen eta nagusien arteko istiluak, eta abar. Dramatismoa bada-go, baina baita gizatasuna ere. Ez du generoa berrasmutzen, baina atal bakoitza experien-tzia xurgatzailea eta guztiz li-luragarria da. Urteko telesai-le-tako bat, zalantza izpirik gabe.





Izoar FERNANDEZ IRIONDO

IIS Biobizkaiako ikerlaria eta Donostiako Informatika Fakultateko doktorego ikaslea

Eta doktoretza ostean, zer?

Konturatu orduko doktoretzako azken urtean zauden. Ez da bat-bateko jauzia, jakina: graduak lau edo bost urte, masterreko beste bat edo bi, eta erabaki-kate luze baten inertziak ekarri zaitu honaino. Tesia egin ala ez erabakitzen ari zinenean, behin eta berriz burura zetorkizun galdera hau zen: “Orain ez bada, noiz egingo dut tesia?” Lau edo bost urtez laborategian, unibertsitatean, kongresuetan eta ordenagailuaren aurrean pilatutako orduak egutegi oso bat jan dute, eta, hala ere, aurrera egin duzu. Hori ospatzeko modukoa da; bidea ikusita, erdibidean amore ematea erraza zen.

«Zertan egiten duzu lan?», galdeztzen dizu jendeak. «Doktorego tesian», erantzuten duzu, eta berehala: «Orduan ikasten jarraitzen al duzu?». Azalpenak aurreztearren, batzuetan «lanean nago» esaten amaitzen duzu, nahiz eta soldata beka prekario bateatik etorri. Galderei ihes egitea estrategia hobea izaten da zure eguneroko akrobaziak azaltzen hastea baino: beka eskatzeko egin behar izan duzun paper-sorta amaigabea (Kaixo, burokrazia!), Donostian edo Bilbon (iker-kuntza zentro gehienak bertan baitaude) etxebizitza duin bat lortzeko egin dituzun bisita nekagarriak, gastuak ordaintzeko malabar ekonomikoak, ia 30 urterekin etxea partekatzearen nekea eta aurrezki urriek zure etorkizuna lausotzen duten modua. Norbaitek esaten dizunean «eskerrak zure lana gustuko duzun», burutik pasatzen zaizu erantzun ironikoa: «Bai zera!».

Lanarekin gustura egoteko arrazoia ez da soilik egiten duzun hori maitatzea. Maitasun soila ez da nahikoa. Lanak berarekin dakar soldatak bizi zaren herrian duen erosahalmena, lan-ordutegiaren eta bizitza pertsonalaren arteko oreka, lankideekin eta

zuzendariarekin duzun harremana, eta etorkizunean zure ikerlari ibilbideak jarraipen bat izango duen ala ez jakiteak sortzen duen tentsioa. Ziurgabetasun horrek osasun mentalean eragiten du, eta, emakume bazara, gehitu STEM esparruan kristalezko sabaia eta eguneroko mikromatxismoak. Pasioa ez da faktura guztiak ordaintzen dituen txartela, ezta etxetik kanpo ordaindu beharreko alokairuaren bermatzailea ere. **Ez dezagun ikerlarion prekaritatea pasioarekin erromantizatu.**

Eta doktoretza bukatu ostean, zer? Ziurgabetasuna nagusi. Ikerkuntza munduan jarraitu nahi baduzu, ez dago argi unibertsitatean plaza iraunkorrik egongo den ala ordeko-irakasle gisa kontratu labur baten mende geratuko zaren. Unibertsitatea utziz gero, azken finean egoerak atzerrira joatera behartzen zaitu “nazioartekotze” puntuak pilatu eta, handik bueltan, etorkizunean beka hobe bat lortzeko (eta ez badut atze-

rrira joan nahi?). Horrez gain, litekeena da etxea partekatzeari eutsi behar izatea, nonahi eta nork daki zenbat denboraz. Buruko zama horiek ez dira “pasioarekin” estaltzen. Irtenbidea? Gizarte-lehentasunak birpentsatzea: ikerketa epe luzeko egitasmo estrategikotzat hartu, eta ikertzailea subjektu ekonomiko eta sozial gisa duintzea.


Eztabaida ireki behar da, eta hori ere zientzia da: datuak eta esperientziak bildu, aztertu, ondorioztatu eta proposamen zehatzak egitea. Baina ezinbestekoa da, lehenbailehen, ikerketa-lanari dagokion aitortza instituzionala, ekonomikoa eta soziala bermatzea; **ikerketa ezin baita beka eta ekimen solidarioen oinarritz bakarrik sostengatu.** Bestela, biharko egunak gaurko galdera berak errepikatuko dizkigu: eta doktoretza ondoren, zer? Edo, agian, gauzak aldatuko dira eta tesia bukatu orduko unibertsitate zein zentro teknologikoetatik eskaintza bikainak izango ditugu zain! (“Nahi bai!”) •



Ikerketa ezin da beka eta ekimen solidarioen oinarritz bakarrik sostengatu. Aritz LOIOLA | FOKU

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



EGILE EZEZAGUNA. FBS FUNDAZIOA.

TRENBIDE BERRIA INAUGURATZEKO, NAZIOARTEKO ERAKUSKETA BAIONAN

1864ko udan, Madril, Irun, Baiona eta Paris lotzen zituen trenbidearen inaugurazio ofiziala izan zen Donostian. Anbizio handiko proiektu hori mugarri izan zen komunikazioetan. Gertakari garrantzitsu horren kariatara, Baionako Udalak, hiriko Merkataritza Ganbarearekin batera, Nazioarteko Erakusketa garrantzitsu bat antolatu zuen Lapurdiko hiriburuan urte hartako udan. Lehen aldiz egin zen ekitaldi honek 8.000 metro karratu inguruko azalera hartu zuen, mugaren bi aldeetako merkatar, artisau, artista, enpresari eta bisitarientzako topagune bihurtuz. Erakusketa bi atal handitan banatuta zegoen: bata nekazaritzakoa eta bestea industriakoa, 100 erakusle baino gehiagorekin. Arte Ederretako txikiago bat ere bazen, margolariak, grabatzaileak eta argazkilariak biltzen zituen. Erakusketak iraun zuen bitartean, antolatzaileek katalogo bat argitaratu zuten, parte-hartzaile guztien zerrenda jasotzen zuena. Gainera, Erakusketan zehar aldizkari bat argitaratu zen, 12 ale izan zituena eta itxiera egunera arte banatu zena. Edizio bakoitzak 6.000 aleko tirada izan zuen, eta helburua erakusketarien berrikuntza komertzialak nabarmentzea zen. Erakusketa-eremuetako bati ateratako goiko irudia erakusketaren argazki-album baten parte da, egile ezezagunekoa.

042 bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



KARAKALPAKSTAN

Ekozidioa, kotoia eta arte debekatua

dagoeneko
zure
kioskoan
salgai

1,50€

eta gainera...

ARASHIYAMA
BANBUEN
XUXURLAK

SAN JUAN CHAMULA
TRADIZIOEN
ZAINDARI

GUERNESEY
MANTXAKO KANALEAN,
ATARI

FLORENTZIA
AIRE ZABALEKO
MUSEOA

ZUGAZTIETA
MEATZARITZA INDUSTRIALAREN
HASTAPENETARA BIDAIA

Elkarriketa Andrea Bergareche **Egin planak** 'Budapesteko paper gaineko maisulanak'; "Burdinazko emakumeak"

Munduan pasieran Magnet Fishing, «altxor ehiztariak» Amsterdamen; Wilde gogoan, Dublinen eta Enniskillen; Zaharberritze lantegiak, ikusgai Vatikanon; Makepung, ur-bufaloen lasterketa; The London Book Fair; Italiako tren geltokia, itsaslabarrean zintzilik...

